



Final handirako prest

Zapatuan Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala jokatu da Miribillan. Durangaldeko hiru lagunek abestuko dute bertan: Eneko Abasolo 'Abarkas' iurretarrak, Miren Amuriza berriztarrak eta Aitor Bizkarra abadiñarrak. • 2-3

“Talde langilea eta fisikoki oso ondo prestatutakoa da Coruñakoa”

Joana Murray
CRAT Coruñako jokalaria • 28



Soziolinguistika Klusterraren arabera, Elorrioko euskararen kale erabilera %34,1ekoa da

Elorrio | 2013az geroztik, 1,2 puntu igo da euskararen erabilera. Hala ere, elkarriketen %62,6 gaztelaniaz dira oraindik • 4



Gabonak



ALKIMAX

Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C - Tel.: 946 824 550
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 - Tel.: 946 271 310
alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net





Eskuzko Igogailua 160Kg-ra arte



Eskuzko Igogailua 360Kg-ra arte



“Bataila psikologikoa gure barruan edukitzen dugu, finalera ondo heltzeko”

BERTSOLARITZA • ARITZ MALDONADO
Miribillan abesteko gogoz daude Aitor Bizkarra (Abadiño, 1996), Eneko Abasolo 'Abarkas' (Iurreta, 1976) eta Miren Amuriza (Berriz, 1990). Amuriza, bere finalurrekoa irabazita, zuzenean sailkatu zen finalera; Bizkarrak eta 'Abarkas'-ek, ostera, pazientzia eduki behar izan dute; finalurreko bertsolari guztiek abestu arte itxaron behar izan dute, lorturiko puntuak nahikoa izan diren jakiteko. Lau emakumez-

kok eta lau gizonezko aspaldiko finalik lehiatuenean abestuko dute. Txapelketaren udazkeneko fasean eskualdeko beste lau bertsolarik ere parte hartu dute: Txaber Altubek, Gorka Pagonabarragak, Garikoitz Sarriugartek eta Beñat Ugartetxeak.

Zein tenperatura hartu diozue txapelketari orain arteko ibilbidean?
Eneko Abasolo: Normalean luzetxo egiten da, baina oraingo honetan

Zapatuan, hilak 15, jokatuko da Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala, 17:00etan. Miribillan jokatuko den saioan Durangaldeko Aitor Bizkarrak, Eneko Abasolo 'Abarkas'-ek eta Miren Amurizak abestuko dute. Jon Enbeitak jarriko dio txapela irabazleari.



Nerea Ibarzabal, Eneko Abasolo, Jone Uria, Onintza Enbeita, Xabat Gallettebeitia, Aitor Bizkarra, Miren Amuriza eta Etxahun Lekue finalistak, irabazleari txapela jantziko dion Jon Enbeitagaz batera.

ez naiz nekatuta heldu. Egia esan, Santurtziko saioaren ostean, hiru asteko atsedenaldia hartu nuen, eta horrek on egin dit. Beraz, orain gogotsu nator. Hobeto ezin da egon.

Aitor Bizkarra: Ez zait luze egin, hau baino laburragorik ez duda-

“

Miren Amuriza:
"Lau emakumeok bultzadatxo bategaz gatoz, talde sentsazio bategaz iristen gara"

■

“

Miren Amuriza:
"Gezurra esango nuke txapela janztea burutik ez zaidala pasatu esango banizu"

■

lako bizi izan aurretik. Udaberriko fasean oso gustura gelditu nintzen, baina beste fase bi geratzen ziren. Gorputza eta aldia uztartzen ahalegintzen ari naiz orain, hori asimilatzen.

Miren Amuriza: Labur egin zait eta kontzentratuta heldu naiz. Euskal Herrikorako eta Bizkaiko beste txapelketa batzuetarako, burua udatik nuen martxan. Aurren, ostera, urrian eta azaroan hasi naiz etxeko lanak egiten. Berrizko saiotik hona ere deskantsatzeko astia izan dut.

E.A.: Batzuetan gorputzari jaramon egitea ona izaten da. Inoiz, buruak egiteko esaten dizu, baina gorputzak, ostera, geratzeko. Gorputzak geratzeko esan dit aurren, burua nekatuta nuen. Eta geratu egin nintzen. Baina, beste batzuetan, beldur izaten gara geratzeko. Finalera heldu bagara, hirurok asmatu dugun seinale.

Zelan kudeatuko dituzue geratzen diren egun hauek?

A.B.: Abarkas-ek eta Mirenek nik baino bataila psikologiko handiagoa izango dute.

M.A.: Aurren abantaila bat duzu, Aitor. Zure lehen finala da.

A.B.: Bai, agian nik momenturen batean erreparo gutxiago izan dezaket ausartago jokatzeko. Baina, ez dakit.

E.A.: Bataila psikologikoa gure barruan izaten dugu, ondo heltzeko. Zu ondo heltzen bazara, eta ahal duzuna egiten baduzu, ondo irten daiteke edo ez.

A.B.: Ez da bakarrik aurreko bidea. Eguna bera ere luzea da. **E.A.:** Egia da. Lehenengo zatia finalerdi bat da, baina zortzigaz. Bakarkakoan, ordenean

azkenetarikoa bazara, agertoki gainean agian ordubete egon zaitezke zain eta luze joan daiteke. Kartzelako ariketa balitz, zeure burua lasaitzeko aukera eduki zenezake.

Final orekatua izango dela diote. Zer pentsatzen duzue zuek?

E.A.: Nik uste dut aurren neska batek jantziko duela txapela.

A.B.: Mirenek jantziko duela esango nuke nik.

M.A.: Gura nuke! (barrez)

Miren, txapela jantzita ikusten duzu zeure burua?

M.A.: Gezurra esango nuke txapela janztea burutik ez zaidala pasatu esango banizu. Txapela irabazten ahaleginduko naiz. Neska batek irabazten badu, horretan jarriko da azpimarra. Baina nabarmentzekoa iruditzen zait bai aurrekoan eta baita aurren ere lau eta lau garelako. Lauok bultzadatxo bategaz gatz, eta talde sentsazio bategaz.

E.A.: Neskek hiru finalerdiak irabazi dituzte. Begien bistan dago sasoi betean daudela.

Zelako giroa izango da zapatuan?

M.A.: Durangaldetik jende piloaterriko da. Gure familiek elkar animatuko dute.

E.A.: Maite Berriozabalegaz batera, Durangaldeko lau ordezkari izango gara oholtza gainean.

“

Eneko Abasolo:
"Igorren argi nuen azken txapelketa izango zela. Orain, zalantzak ditut"

■

“

Aitor Bizkarra:
"Gorputza eta aldia uztartzen ahalegintzen ari naiz"

■

A.B.: Ez dakit sarreraren salmenta zelan joango den, baina beste saioetan giro itzela izan da.

E.A.: Saiatuko gara gozatzen.

M.A.: Eta gozarazten.

'Abarkas'-en azken txapelketa izan daiteke hau?

E.A.: Igorren argi nuen azken txapelketa izango zela. Baina, orain, zalantzak ditudanez, ez dut ezer esango. Santurtzin asko sufritu nuen.

A.B.: Sufritu duzu aurretik hasi behar izan zarelako. Baina, behin finalaurrekora helduta...

E.A.: Lehenengo, Getxon, "erraz egingo duzu", esaten zidaten denek. Baina, ez da erraz egiten. Agian, finalera heldu eta uztea ez da txarra. Baina, ez dakit. Hemendik urte bira ikusiko dugu.

Maite Berriozabalek emango ditu finaleko gaiak, talde baten babesa atzean duela

Berriozabalegaz batera, Amaia Ugaldek eta Itxaro Juaristik ere parte hartu dute txapelketako gaiak sortzeko taldean



Gai-jartzaile taldean bederatzi lagun daude. Irudian, Ugalde, Juaristi eta Berriozabal.

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Maite Berriozabal berriztarra izango da finaleko aurkezleetakobat, bertsolariei gaiak emango dizkiena hain zuzen. Dagoeneko bere hirugarren finala izango da eta pozik hartu du emandako aukera. "Erronka bat da, baina horrelako

saio batean parte hartu ahal izatea plazerra ere bada, eta ilusioa egiten du", esan du. Txapelketan bederatzi lagun ibili dira gaiak sortu eta aukeratzeko prozesuan, eta horien babesa sentitzen du. "Taldeo oso baten lanaren erakusle izango da finala ere. Talde lana denean,

beste lasaitasun bat eta babes bat dituzu", azaldu du Berriozabalek.

Orain urte bi finalean parte hartu zuen Amaia Ugalde elorriarrak, eta aurren Lekeitiokofinalaurrekoa aurkeztu du. Beraz, biharkoa lasaia biziko du. Gai-jartzaileen artean "sintonia ona" egon dela nabarmendu du. Gaiak sortu, zelan aurkeztu ulergarri izateko, ofizioen artean oreka

Berriozabal: "Erronka bat da, baina horrelako final batean parte hartu ahal izatea plazerra ere bada"

mantendu... prestaketa lan handia egin dute.

Itxaro Juaristi abadiñarra gai-jartzaile taldeko gazteena da, 21 urte gaz. Orain urte bi udaberriko fasean ibili zen, eta aurren udazkenekoan ere egon da, lehenengoz. Gazteen freskura eman, eta esperientzia jaso du bueltan. "Esperientzia zoragarria izan da. Besteen esperientziaz asko ikasi dut". Txikitatik da bertsozalea. 17 urte gaz Bertsozale Elkarteko ikastaro batean hasi zen murgiltzen, eta "bertso mundua beste ikuspegi batetik bizitzeko modua" topatu du.

Miriam Juaristi zaldibartarra Miribillako epaileen artean egongo da

Jon Jaio iurretarra, Alaitz Etxanobe mañariarra eta Miriam Juaristi zaldibartarra txapelketako epaile taldean ibili dira; Juaristik finalean parte hartuko du bihar

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Normalean itzalean geratzen da euren lana. Irizpide batzuei jarraituta, ardura zaila dute bertsoak epaitzen. Euren artean sintonia lortzeko, entrenamenduak ere egiten dituzte. Azken txanpara heldu dira orain. "Presio apur bat gehiago egon liteke. Baina, azken finean, saio guztiak dira beharrez-

koak finalera ailegatzeko". Epaile lez bigarren finala izango duen Miriam Juaristiren berbak dira. Gustu eta eraginaren gaintetik, euren lana hoztasunez hartzen dutela dio. "Argi dugu zein den gure lana".

Juaristi eta Etxanobe 2014an hasi ziren epaile zereginetan, hainbat sariketatan. Epaileak epaituak edo behatuak bihurtzen

dira sarri. Baina Etxanobek dio kontzentratuta egoten direla. "Normalean ez dizu astirik ematen jendeari begiratzeko".

Txapelketan gustura ibili direla dio aurretiaz final bitan parte hartu duen Jon Jaio. "Alerta egon behar duzu, beste era batera entzutun dituzu bertsoak, baina polita ere bada".



Ezkerretik hasita, Jaio, Etxanobe eta Juaristi.



Arriolan egindako aurkezpeneko argazkia. IÑAKI LOPEZ.

Soziolinguistika Klusterraren arabera, 2013tik 1,2 puntu igo da euskararen kale erabilera Elorrion

Herriko egoera soziolinguistikoa zein den ikusteko asmoz, maiatzaren 24tik 27ra bitartean hizkuntza erabileraren kale-neurketa egin zuen Soziolinguistika Klusterrak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko egoera soziolinguistikoa zein den ikusi eta herriko euskararen errealitatea plazaratzeko asmoz, Soziolinguistika Klusterrak hizkuntza erabileraren kalenurketa egin du aurren. Aurrez, 2013an eta 2008an egin zituzten neurketak Elorrioren.

Aurtengo neurketako emaitzak maiatzaren 24tik 27ra bitartean Elorrioko kaleetan jaso zituzten erabilerarenak zirela jakitera eman zuen Belen Uranga, Soziolinguistika Klusterrak azaroan Arriola antzokian egin zuen aurkezpenean. Bertan jakinarazi zutenez, Elorrioko euskararen kale erabilera %34,2koa da, 2013an baino 1,2 puntu gehiago. Hala ere, oraindik, neurtutako elkarrizketen %62,6 gaztelaniaz izan zirela jakitera

eman zuten eta % 3,2 beste hizkuntza batean.

Bestalde, Soziolinguistika Klusterraren neurketaren arabera, haurrak (2-14 urte bitartekoak) dira euskara gehien erabiltzen dutenak (%59). Euskara gutxien erabiltzen

**Euskararen kale
erabileraren azkenengo
neurketa 2013an egin
zuten Elorrión**

Haurrek eta helduek osatutako taldeetan, euskararen erabilera %58ra igotzen da

dutenak, berriz, adinekoak dira, 64 urtetik gorakoak (%13,7). Gazteen erabilera (15-24 urte bitartekoak) %50ekoa izan da eta helduena (25-64 urte bitartekoak) %29,9koa. Haurrak izan arren euskara gehien erabiltzen dutenak Elorrión, 2008az geroztik gehien hazi den ehunekoa gazteena izan da. 2008an, 15-24 urte bitarteko gazteen %23,2k erabiltzen zuten euskara, 2013an %28,3k eta gaur egun %50ek.

Klusterrek egindako ikerketak hizkuntza ohituren inguruko beste datu esanguratsu batzuk ere azaleratu ditu. Esaterako, haurrak bakarrik (nagusirik barik) daudenean %56,6koa da euskarazko erabilera Elorrion. Nagusiek, euren artean (haurrik barik) ari direnean, %22,7koa. Haurrek eta helduek osatutako taldeetan, berriz, %58ra

igotzen da erabilera. Bestalde, hiru ibilbide eginda ere neurtu dute euskararen kale erabilera. Erreka kalean, Errebonbilo, Don Tello eta Elizburu kaleetan eta Herriko plaza inguruan entzun dute euskara gehien (%40). Gutxien, berriz, Labakua eta Esteibarlanda kaleetan, Ibarra auzoan eta Osasun Zentro inguruan (%23); 2008an inguru horretan %30,6koa zen euskararen erabilera.

DATU OROKORRAK

- 2013-2018 bitartean
1,2ko igoera izan du
Euskararen erabilera
- Elkarriketen %34,2
euskaraz dira
- Elkarriketen %62,6
gaztelaniaz dira
- Elkarriketen %3,2 beste
hizkuntza batzuetan dira
- Haur eta nagusiez
osaturako taldeetan
haurrak hitz egiten
dutenean elkarriketen
%58 euskaraz dira

**Aire kutsatua
isurtzeari amaiera
emateko eskatu
diote Betsaideri**


ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Azken boladan herriko zenbait puntutan agertu den hauts toxikoagaz eta bertako airearen kalitateagaz arduratuta, hainbat herritarrek Elorrio Bizirik dinamika sortu dute. Elorrioko egoera nolakoa den aztertu, eta datuak mahai gainean jartzea da euren asmoa. Mireia Irazola kimikariak jakinarazi duenez, Betsaidekoa aspaldiko kontua da; lehenengo kezak 1998koak dira. "Urte askoan, Elorrion

**Elorrio Bizirik dinamikako
kideek herriko egoera
nolako den aztertu gura
dutela jakitera eman dute**

arazoak izan ditugu aireagaz, kutsadura akustikoagaz, trafikoagaz..., eta hori konpontzea gura dugu", esan du.

Horrez gain, euren helburua ez dela enpresa ixtea adierazi dute. "Ez dugu Betsaide ixtea eskatzen, gauzak ondo egitea baizik. Hori bai, guk beti jarriko dugu mahai gainean lantokia-rentzat leku egoki bat topatzea", adierazi dute Elorrio Bizirik dinamikako kideek.



anboto
komunikabideak

**Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558**

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko abenduaren 14a
17. urtea - 746. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale

Zuzendari ordea: Markel Onaindia Txabarri.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Publizitate: Alazne Salcedo Artetxe eta Itxaso Martinez de Arenaza Yarza.
Erredakzioa: Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi eta Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



 PEFC ziurtagiria
Produktu hau
kontrolatutako
iturrietako materialez
egina dago, birziklatua
da eta Baso Kudeaketa
Iraultzailearen
ziurtagiria dauka
www.pefc.es
PEFC/14-38-00225



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laquntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

**Berrizko Udalak hileta
zibilak egiteko
ordenantza onartu
zuen joan zen astean**

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Hileta eta omenaldi zibilak egin ahal izateko, lokal eta espazio publikoen erabilera eta bai-menak erregulatzen dituen ordenantza onartu zuen joan zen astean Berrizko Udalak. Orland Isoird alkateak jakitera

Hiletak Kultur Etxeko aretoan, udaletxeko lorategian, frontoian... egin daitezke

eman zuenez, ondorengo leku
hauetan egin daitezke hiletak:
Kultur Etxeko aretoan, udale-
txeko lorategian, pleno aretoan,
hilerriko gaubelan, hilerriko
sarreran, frontoian eta kirolde-
gian. Gainera, hiletetara gorpua
edo errautsak eraman ahal izan-
go direla jakitera eman zuen.

Bestalde, EH Bilduk adierazi zuen herritarrei jakinarazi egin behar zaiela hileta zibilak egiteko aukera dagoela.

Gerra zibilean eta frankismoan kartzelaratu zituzten emakumeen historia ikertuko dute Mañarian

2019ko aurrekontuetan 25.000 euroko diru atal bat bideratu dute helburu horiek gauzatzera

MAÑARÍA • ANBOTO

2019ko aurrekontuetako inbertsioen atalean 25.000 euroko diru atal bat sortu dute memoria historikoan sakontzeko. Modu bitarra egingo dute. Batetik, beka bat sortuko dute, gerra zibilean eta haren ostean kartzelaratu zituzten emakumeen inguruan gehiago jakiteko. “Nortzuk izan ziren eta non egon ziren jakin gura dugu. Orain ez dakigu askorik”, azaldu du Endika Jaio alkateak.

**Mañariko emakume
kartzelaratuak nortzuk
izan ziren eta non egon
ziren jakin gura dute**

**Gerran gertatutakoa
gogoratzeko gunea
kanposantuen eta
frontoiaren artean egongo da**



Pilotalekuaren atzealdeko horman marraztuko dute murala.

Bestetik, herrian gune bat sortuko dute gerra zibilean gertatutakoa gogoratzeko. Frontoiaren eta kanposantuaren artean dagoen eremuan izango da, esangura historikoa duten hainbat elementuk bat egiten dutelakoan. Esate baterako, toki horretatik Saibigaineko gurutzea ikus-

**25.000 euroko diru
atal bat sortu dute
memoria historikoan
sakontzeko**

ten da, gerra zibileko batailan hildakoak gogoratzen dituenak. Gune berriak osagai nagusi bi izango ditu. Batetik, frontoiaren atzealdeko horman mural bat marraztuko dute. Bestetik, Saibigain ikusten den tokian gailu bat jarri gura dute. Bertatik, besteak beste, Saibigaineko batailaren gaineko informazioa deskargatuko litzateke mugikorrera, QR kodigo baten bitartez.



Clase A Berria. Just like you.

Ikus ezazu Clase A Berria, ahotsaren bidez gida dezakezun adimen artifizialeko sistema berritzailez hornitutako autoa, bere mailako bakarra. Horrez gain, badauzka ukimen-pantaila multimedia eta errealtate areagotua eta hiririk gabeko konektagarritasuna daukan nabigatzeko beste pantaila bat. Auto paregabea, zu bezalakoa.

Clase A Berria 200 250€/hilean¹, 48 kuotatan.

Hasierako diru-ekarpena: 10.345,31€

Irteera-eskaintza: AMG linea eta Premium paketea

1. Finantzaketa-adibidea: Clase A 200 250€/hilean BEZ barne, sarrera 10.345,31€ BEZ barne, 48 kuotatan eta 80.000Km. Baliozko eskaintza 31 urte baino gehiagoko bezeroentzat eta 2018/12/31ra arte egindako eskaerak 2019/01/15era arte onartutako eskaera eta kontratua indarrean 2019/02/28ra arte. Mercedes-Benz Complete, Mercedes-Benz Rentling, S.A. (Bruselas etorbidea 30, 28108 Alcobendas-Madril)-ek komertzializatutako marka da. Argazkiko modeloa agian ez dagokio eskaintzan agertutakoari (2). CO₂-ri dagozkion baloreak "NEDC CO₂" entsaiaren prozeduraren arabera lortu dira. Hae (UE) 2017/1153 Aplikazio-araudian (2 artikuluan, 1 zenbakian) arautzen da eta (CE) 692/2008 Araudiaren XII. eranskinarekin arabera kalkulatzeko da. Erregaien kontsumoa balore horiek kontuan hartuta lortu da. Europako gidatzairen zikloaren prozeduretan egondako araudiaren aldaketaren ondorioz, une bakoitzari dagozkion entsegu-sistemak kontuan hartuko dira. Hori dela eta, ibilgailuaren adostasun-ziurtagiria ez ezik, fitxa teknikoan ere balore altuagoak ager daitezke. Balore hauek garrantzitsuak dira ibilgailua matrikulatzeko unean eta, matrikulazio-zergan edota Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergan ere eragina izan dezakete. Informazio gehiago www.mercedes-benz.es-en



Aguinaga

Bizkaiko Mercedes - Benz kontzesionario ofizial bakarra

Borja Industrialdea, 2. Nabea 3. 48340 ZORNOTZA. Tel.: 94 630 17 47. www.aguinaga.mercedes-benz.es

Durangoko emakume batek eraso sexista bat sufritu du, eta bere bikotekidea salatu du komisarian

Udalak babesa erakutsi zion emakumeari, eta atzoko elkarretaratzeagaz bat egin zuen

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Eraso sexista bat sufritu eta gero, Durangoko emakume batek bere bikotekidea salatu zuen komisarian, martitzenean. Emakumeak adin txikiko bat du bere kargu. Udalak eguaztenean informatu zuen gertaeraz, eta indarkeria matxistaren aurkako udal protokoloa aktibatu zuen.

Ohar bidez eraso gaitzetsi, emakumeari babesa erakutsi eta plataforma feministak egunerako Andra Marian deituta zuen elkarretaratzeraz joatera animatu zituen herritarrek. Protokoloari jarraituz, udalak dituen baliabide

psikologiko, juridiko, ekonomiko eta asistentziakoak emakumearen esku ipini zituen.

Dagoeneko 38 dira Durangon aurten genero indarkeriagatik ipinitako salaketak

38 salaketa

Asteon erregistratutakoagaz, dagoeneko 38 dira Durangon aurten genero indarkeriagatik ipinitako

salaketak. Udalak azaroaren 25eko ekitaldiak aurkezteko prentsaurrekoan eman zituen urteko datuak, eta orduan 37 ziren salaketa ipinitako emakumeak.

Gehienak 21-30 adin tartean

Udalak eman zituen datuen arabera, indarkeria kasurik gehienetan emakumeak 21-30 adin tartekoak izan dira, eta gero 41-50 tartekoak. Biktima horietako 10ek adin txikiak eduki dituzte euren kargu.

Bestalde, erasotzaileen kasuan, gizonek gehienak Bizkaikoak izan dira, Durangokoak barne hartuta.



Eraso sexistak salatzen elkarretaratze bat, artxiboko irudian.

Hainbat herritarrek prozesioa egin dute Durangon, etxe dorreen orde berdeguneak eskatzeko udalari

DURANGO • A.M.

Kandelak eskuan, Andra Mariko elizpetik irten eta tren geltokira prozesioan joan zen herritar talde bat Durangon, etxe dorreen orde berdegune gehiago eskatzeko. Joan zen egunean izan zen protesta bitxia, herritar talde batek era espontaneoan deitutakoa.

Goizean aldre bat jarri zuten loreekin eta arbolekin apainduta tren geltoki inguruan, eta hantxe amaitu zuten prozesioa, hain zuzen. Han ipinitakoak kendu egin

zituzten bihamunean, baina ekintzaileek berriro jarri zituzten. Ildo horretatik, azoka egune-

Goizean aldre bat jarri zuten loreekin eta arbolekin apainduta tren geltoki inguruan

tan estazio zaharreko lurretako planaren aurkako kartelak agertu ziren herrian.

Dendak Baik 1.200 sarrera banatuko ditu izotz pistarako

Erosketekin batera jaso ahalko dira gonbidapenak

DURANGO • M.O.

Dendak Baik elkarteak 1.200 gonbidapen banatuko ditu Durangoko izotz pistarako. 20 eurotik gorako erosketak egin, gonbidapen bat jasoko dute herritarrek; 40 eurotik gorakoetan, bi; eta 60 eurotik gorakoetan, hiru. Abenduaren 1etik 31ra arteko erosketen tiketak Dendak Baik elkartearen bulegoan aurkeztu behar dira, sarrerak jaso ahal izateko. Elkarrearen baitako dendetan egindako erosketek balioko dute.





Gaztelu-Iturri
ARKITEKTURA

94 650 91 94
gazteluiturri.com




OBRA BERRIA
ERREHABILITAZIOA
BERRIZTATZEA
BARNE DISEINUA

Komunitateak | Enpresak | Partikularrak



Datorren astetik aurrera hasiko dira zuhaitz landare autoktonoak landatzen.

Otxandion, Mekoleta eta Gomilaz arteko baso batean zuhaitz autoktonoak landatuko dituzte

Apurka bertoko basoak berreskuratzen joateko ahalegina da; besteak beste, elorria eta otsalizarra landareak sartuko dituzte

OTXANDIO • ANBOTO

Otxandion, Mekoleta eta Gomilaz auzoen arteko baso batean, bertakoak ez diren zuhaitzak kendu dituzte eta, horien ordez, datorren astetik aurrera zuhaitz landare autoktonoak sartzen hasiko dira. Otxandioko Udala da hiru hektarea pasatxoko baso horren jabea eta Ambientaliala 21 ari da egitasmoa gauzatzen, Bizkaiko Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzagaz. Bizkaiko Aldundia basoko kudeaketaren arduraduna

da eta Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak eman ditu.

Kendu dituzten zuhaitz motak, batez ere, haritz amerikarra, aler-tzea eta konifero mota batzuk dira.

Fruituak ematen dituzten zuhaitzak dira eta hori faunarentzat onuragarria izango dela uste dute

Alertze batzuk (%20 inguru) ez dituzte bota, txoriei habiak egitea errazteko.

Kendutako landare horien ordez, elorria, elorri beltza, otsalizarra eta basoko makatza sartuko dituzte, denak espezie autoktonoak. Fruituak ematen dituzten zuhaitzak dira eta hori inguruko faunarentzat onuragarria izango dela uste dute. Txorientzat, azerientzat eta abar.

Hemen eta Otxandioko beste zonalde batzuetan aurretiaz ere bertako zuhaitz landareak sartu dituzte, baina landaketa puntualak izan dira.

Administrazio elebiduna lortzeko asmoz, plan berria dute lurretan

IURRETA • ANBOTO

Herritarren hizkuntza eskubi-deak bermatzeko asmoz, administrazio elebiduna lortzeko "pauso sendoak" eman gura ditu udalak. Horretarako, Iurretako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana onartu dute, Jaurlaritzaren planagaz bat eginda. Besteak beste, euskara zerbitzu-hizkuntza izateko eta idatzizko erabilera areagotzeko lan egingo dute, eta prestakuntza eskainiko dute euskara lan hizkuntza izan dadin.

Trafikoko hainbat tramite herrian bertan egin ditzakete iurretarek

IURRETA • ANBOTO

Zerbitzuak herritarrei hurbiltzeko helburuz, lankidetzaren hitzarmena sinatu du udalak Trafikoko Lurralde Buruzagitzagaz. Horren ondorioz, trafikoko hainbat tramite Herritarren

Lankidetzaren hitzarmena sinatu du udalak Trafikoko Lurralde Buruzagitzagaz

Arretarako Zerbitzuan egin daitezke aurrerantzean. Besteak beste, gidari eta ibilgailuen errolda kudeaketa, helbide berri eta aldaketen komunikazioak eta ibilgailuen behin betiko bajak.

DURANGO 2018

"AURKEZPEN LABURRAK"

PechaKucha

DURANGALDEKO GAZTEEN KULTUR EKIMENAK

↓

ABENDUAK 20

ORDUA: 19:30

GOIENKALEA, 16

PechaKucha

* 20 IRudi X 20 SEGUNDU

AIERT ZUBIGARAI (MARRAZKILARIA)
ANARTZ ARANGUENA (TATUATZAILEA)
BERBAZ ALDIZKARIA
ARGAZKI MATADOIA
ATARA ZARATA ANTZERKI TALDEA

Durangaldeko Adiskideen
gerediaga elkartea

DURANGO
Udala • Ayuntamiento

saltan

GARAI
BREWING CO.



Mugikorretarako 'Merkatari' aplikazioa jarri dute martxan Abadiñon

ABADIÑO • ARITZ MALDONAD

Salerosketak Abadiñon egitea errazteko aplikazioa da *Merkatari*, eta astelehenetik aurrera dago eskuragarri. Abadiñoko 25 saltokik egin dute bat Abadiñoko Merkatarien Elkartek eta udalak elkarlanean garatu duten proiektuagaz. Hau ezagutzera emateko, hainbat ekimen antolatu dituzte. Esaterako, abenduaren 18ra bitartean aplikazioa jaisten dutenen artean smartbox bat zozkatuko dute. Abenduaren 19an *lip dub* bat grabatu gura dute. Horrez gain, elkarteak asteburu-pasak, bazkariak eta erosketa karroak oparitu dituzte, gabonetan erosketak elkarteko kide diren denetan erosten dutenen artean.



1.000 kiloko behiagaz markak hautsi ditu Jacinto Iturriagaetxebarriak

ABADIÑO • MARKEL ONAINDIA

Gaztelu auzoko Jacinto Iturriagaetxebarriaren behiak markak hautsi ditu, kasik 1.000 kilora ailegatuta. Joan zen barikuan Oñatiko hiltzegira eraman zuen. Hain zuzen, 994 kilo pisatu zuen. Bere aurretik 892 kilotan zegoen marka ezarrita, hori ere Abadiñokoa. Zortzi urte zituen behiak. "Kariño handia eduki diot, eta disgustu handia hartu dut hil egin behar nuela jakitean", esplikatu du abeltzainak. Galdakaoko harategi batek erosi du behiaren okela.

Domekan Leioako azokara joango da Iturriagaetxebarria bere abelburuekin. Aurretik, lau sari irabazi izan ditu han.

Abadiñoko Udalak Muruetan zentro komertziala egiteko duen autonomia "errespetatzeko" eskatu die Navarrok EH Bilduri eta Herriaren Eskubideari

Muruetako lurretan beste merkataritza gunea bat ezarri beharrean, parke teknologikoa eta formakuntza gunea eraikitzearen aldeko mozioa aurkeztu zuen EH Bilduk Abadiñon, Durangon eta Bizkaiko Batzar Nagusietan; Abadiñon ez, beste bietan babesa lortu du proposamenak

ABADIÑO • A.M. / M.O.

Muruetako lursailetan zentro komertziala barik, parke teknologikoa eta formakuntza gunea egiteko proposamena aurkeztu du EH Bilduk. Bizkaiko Batzar Nagusietan eta Durangoko Udalean onartu egin dute, Ahal Duguk eta Herriaren Eskubideak babestuta. Abadiñoko Udalaren planak Durango-

ko San Fausto auzoan eragingo luke, eta, horregatik, Durangok badu zertaz arduratu. EAJ eta PSE-EEren gobernu taldeak zenbait baldintza eskatu dizkio Navarrori, eta bete ezean Durangoren interesak defendatuko dituztela iragarri dute.

Durangotik jasotako iritzien aurrean, Abadiñoko Udalaren autonomia "errespetatzeko" eskatu du

Abadiñoko Udalaren planak Durangoko San Fausto auzoan ere eragingo luke

EAJ eta PSE-EEren gobernu taldeak zenbait baldintza betetzea eskatu dio Navarrori

Jose Luis Navarro alkateak. Gainera, bere esanetan, Muruetan parke zientifikoa egiteko aukera jasotzen da Hiri Antolamendurako Plan Orokorrean (HAPO), baina Landako ondoan dauden lursailentarako. San Faustoko mugan dauden lursailak, oster, merkataritza-lurzoruz izateko "erreserbatuta" daudela dio.

Alkateari erantzun gutuna

Bestalde, Ondasun Higiezinaren Zer-garen gaiak pil-pilean jarraitzen du. Kaltedunen herri plataformak "demagogia eta populismoa" ikusi ditu Navarroren joan zen asteko adierazpenetan, diru-laguntzei esker OHZ merkeena dutela esatean. "Tamaina eta zerbitzu antzerakoak dituzten inguruko herriek baino 12 puntu gehiago ditugu", diote pla-

**OHZren plataforma:
"Bilboko Kale Nagusian
bizi bagina bezala
ordaintzen dugu"**



Muruetan merkataritza gunea eraiki gura du Abadiñoko Udalak, baina ez du oposizioaren eta Durangoko Udalaren adostasunik.

taformakoek. Abadiñon, 180.000 eurotik gorako balio katastrala duten etxeentzat %0,32koa da OHZren tipoa. "Bilboko Kale Nagusian bizi bagina bezala ordaintzen dugu OHZren tipoa". Gutun berean, EAJren "isiltasuna" salatu dute.

Abadiñoko EH Bilduk Mikel Urrutia aurkeztuko du berriro 2019ko maiatzeko udal hauteskundeetara

2015. urteko udal hauteskundeetarako zerrendetan ere Mikel Urrutia izan zen alkategaia koaliziotik Abadiñon

ABADIÑO • A.M.

EH Bilduko zinegotzien bozeramailea izan da azken legegintzaldian Mikel Urrutia. Ingeniaria izan arren, irakasle lanetan dabil azken

"Zerga sistema duin eta justua arautuko dugu, herritarrek ito barik beharrak betez"

urteetan abadiñarra; Abadiñoko institutuko irakaslea da Urrutia. Hautagaitzaren aurkezpenean, Abadiñon azken urtean zeresana eman duen OHZ zerga jaitsiko duela azaldu du, irabazten badu. "Zerga sistema duin eta justua arautuko dugu, herritarrek ito barik

beharrak betez, eta etxebizitzaren OHZ jaitsiko dugu", esan du. Horrez gainera, auzoetan aurreikusten diren inbertsioak modu orekatuan egingo dituztela agindu du, eta "estrategikoak" diren beharrianak lehenetsiko dituztela.

"Beharrianak ardatz"

Oposiziotik, hainbat bider kritikatutako izan ditu udal gobernuaren erabakiak. Urrutiaren berbetan, udalaren kudeaketan gabeziak ikusten ditu. "Abadiñok dituen baliabideak hobeto eta modu eraginkorragoan erabiliko ditugu; herritarren beharrianak hartuko ditugu ardatz", adierazi du. Honegaz batera, udalako erabakietan parte hartzeko aukera zabaldu gura die herritarrei, kontseilu zein galdeketen bidez.



Mikel Urrutia EH Bilduren bozeramailea izan da legegintzaldi honetan.

Prozesu parte-hartzaile baten bidez diseinatuko dute Zaldibarko eskola inguruko eremua

Prozesu parte-hartzailea abenduaren 10ean abiatu zen eta 21era arte iraungo du; ia hamar urtez geldirik egon da proiektua, eta, hamarkada honen ostean, 1 bizitegi-gunea proiektua aldatzea onartu dute azaroko osoko bilkuran



Eskolako haurrak izango dira proiektuaren ardatza.

ZALDIBAR • A.M.

Zaldibarko eskola inguruan dagoen 1 Bizitegi-Gunerako urbanizazio planean EH Bilduk proposaturiko aldaketa onartu zuten azaroko osoko bilkuran, PSEren babesagaz. EAJk proposamenaren aurka bozkatu zuen. 2007-2008tik zegoen plan hau proiektatuta. Hala ere, geldirik egon da hamarkada honetan zehar. Eneritz Azpitarte alkatearen esanetan, proiektu hau estrategikoa da Zaldibarrentzat. “Gaur egun, eskola ingurua toki iluna da eta proiektu honi esker biziberritu egingo da”, adierazi du. Proiektuak 1.742.624 euroko aurrekontua du, eta alkatearen berbetan, 2007-2008an aurreikusi zena baino milioi bat euro merkeagoa da.

Prozesu parte-hartzailea

Urbanizazio planeko aldaketak zuzenean eragingo du Zaldibarko eskolan eta inguruetan: 2.500 metro koadro gehituko zaizkio eskolako patioari. Jolas eremua eta inguruak diseinatzeko, prozesu parte-hartzailea abiatuko du udalak, Txatxilipurdi enpresagaz elkarlanean. Umeen beharrianak izango dira prozesuaren ardatza. Abenduaren 10ean jarri zen martxan, eta 21era arte iraungo du. Bertatik irtendako ideiarik onenekin erakusketa egingo dute.



“Durangoko merkataritza garai berrietara egokitzeko etengabeko berrikuntzan ari da”

Iñaki Uribe - Saltsan



DURANGO
Udala · Ayuntamiento

Izurtzan lan poltsa bat sortzen dabilta aguazilaren ordezkapenak egiteko

IZURTZA • ANBOTO

Izurtzako Udalean aguazil posturako lan poltsa bat sortzen ari dira, egungo aguazilak ordezkoa behar duenerako. Prozesua martxan dago, eta 15 pertsona aurkeztu dira.

Lehenengo, azterketa teoriakoa egin zuten. Horren ebaluazioa gaingitu zutenek azterketa praktikoari aurre egin zioten. Datozen egunetan azterketa horien emaitzak jakinaraziko dituzte. Datorren urte hasieran euskara azterketa egingo diete arlo horretako titulaziorik ez dutenei. Azken urrats hori gaingitzen dutenen artetik irtengo da aguazilaren ordezkapenak egiteko lan poltsa eguneratua.

Iaz baino 15 gaztetxo gehiagok parte hartuko dute Mallabiko Gabonetako Ludotekan

MALLABIA • ANBOTO

Satxibu Aisialdi Taldeak Gabonetako Ludoteka antolatuko du, bigarren. Iaz 12 gaztetxok partu hartu zuten eta aurten 27 ibiliko dira, 2017an baino 15 gehiago. Abenduaren 26tik 28ra izango da. Besteak beste, Bilboko Pin-era joango dira eta *Hungers Games* izeneko nobeletan oinarritutako jokoak egingo dituzte. Gaur, 20:00etan, batzar informatiboa egingo dute Kontzejuzarrean.

Garaiko kultur etxe ostean saneamendu sarea berrizteko lanak hasi dituzte

GARAI • MARKEL ONAINDIA

Herriko kultur etxearen atzeko aldeko zonaldean saneamendu sarea hobetzeko proiektua garatzen dabil Garaiko Udala. Sare hori berriztea da helburua, eta 24.000 euroko inbertsioa egingo du horretarako. Udal arduradunek informatu dutenez, Urre enpresari adjudikatu dizkiote obrak.

Dagoeneko hasita daude lanak, eta abendua amaitu aurretik eginda egotea aurreikusten dute arduradunek.

ZORNOTZA • ANBOTO

Azken udalbatzarrean 2019ko aurrekontuak onartu zituzten EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin. EH Bilduk aurrekontuen kontra bozkatu zuen eta erabaki horren arrazoi nagusietako bat Urgozon egitea aurreikusten den kiroldegi berria da. "Ez gaude kiroldegiaren kontra", adierazi zuen Urko Lopez zinegotziak, baina "beharrizanen azterketa" bat garrantzitsua dela uste dute. "Herri honek hazkunde

Urko Lopez: "Ez gaude kiroldegiaren kontra, baina beharrizanen azterketa beharrezko ikusten dugu"

Kiroldegia eta musika eskola "hauteskundeetara begirako politikak" dira Hiri Ekimenarentzat

nabaria izan du azken urteetan eta, seguruenik, hurrengo urteetan handiagoa izango du. Ez dugu hango zerbitzuak labur geratzerik gura. Beharrizanen azterketarik egin barik hori gertatu daitekeen beldur gara", adierazi zuen.

Zornotzako EH Bilduk kiroldegiaren beharrizanen azterketa egitea eskatu du proiektua martxan jarri aurretik

"Ez dugu kiroldegiko zerbitzuak labur geratzerik gura, eta azterketarik egin barik hori gertatu daitekeen beldur gara", azaldu zuen Urko Lopez zinegotziak udalbatzarrean

Hiri Ekimena abstenitu egin zen aurrekontuen bozketan. "Badaki-gu guretzat estrategikoak diren proiektu askok bete barik jarraituko dutela", adierazi zuen Alba Gutierrez zinegotziak, aurtengo inbertsio askogaz "bat datozela" esan arren. Hori esateaz batera, musika eskola eta kiroldegia aipatu zituen.

"Ezin diogu baiezkota eman musika eskolaren edo Urgozo kiroldegiaren kudeaketari. Guretzat hori ez da denontzako Zornotza bat erakitzea, hauteskundeetara begira politika egitea baizik", azaldu zuen.

2019ko aurrekontuetan 400.000 euroko diru atala eman dute kiroldegirako. "Lanak 2019ko udan has-

tea gustatuko litzaiguke", azaldu zuen Andoni Agirrebeitia alkateak.

Andoni Agirrebeitia: "Kiroldegiko lanak 2019ko udan hastea gustatuko litzaiguke"



Kiroldegi berria zelan geratuko den erakusten duen irudia.

"Marixurrike elkarteak herritik eta herriarentzat sortutako proiektua da"

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

10 urte bete dira Marixurrike aisialdi taldea sortu zenetik. Iaz urte erdi iraun zuen hausnarketa prozesua egin zuten, eta, herriko komunitatea saretzeko asmoz, lan ildo berria ezarri zuten. Orain, berriz, hezitzaile bila dabilta Arantza Rodríguez (Atxondo, 1991) eta Amaia Camuñas (Atxondo, 1992) Marixurrikeko kideak, belaunaldi aldaketa bat egitea beharrezko ikusita.

Marixurriken belaunaldi aldaketa bat egiteko asmoz, lan poltsa zabaldu duzue.

Arantza Rodríguez: Biotako batek lana utzi beharko balu ez dugu lan poltsarik; beraz, hau sortzea beharrezko ikusten genuen. Gainera, Amaiak urte bi daramatza Marixurriken, eta nik bost, eta beharrezko ikusten dugu jende gaztea sartzea, belaunaldi aldaketa bat egon dadin.

Amaia Camuñas: Momentu honetan, gure atzetik ez dago inor eta pena litzateke egunen batean aisialdi elkarteak desagertzea.

Etorkizuneko hezitzaile horrek nola-ko profila eduki beharko luke?



Arantza Rodríguez eta Amaia Camuñas.

A.R.: Hasieran, Lehen Hezkuntza, Haur Hezkuntza edo begirale titulua edukitzeari ematen genion lehentasuna. Baina, Atxondoko egoera ikusita, bertakoa eta euskalduna izatea eta proiektuan eta herrigintzan sinestea ezinbestekoak zirela pentsatu genuen. Beraz, bigarren hauei emango diegu lehentasuna.

A.C.: Marixurrike elkarteak herritik eta herriarentzat sortutako proiektua da; beraz, horretan sinestea ezinbestekoa da.

Zer eman dizue Marixurrikek?

A.R.: Niri, esaterako, pertsona moduan hazten lagundu dit. Lehen oso pertsona lotsatia nintzen eta asko lagundu dit horretan.

A.C.: Nik magisteritza ikasketak egin nituen eta umeei harreman zuzena edukitzeko eta eurekin lan egiteko aukera ezin hobea eman zidan Marixurrikek.



Bilboko manifestaziorako deialdia egin dute pentsiodunek

DURANGALDEA • M.O.

Pentsiodunen mugimenduak Hego Euskal Herriko hiriburuak hartuko ditu bihar, "pentsio duinak" eskatzeko borrokan. Hamar hilabete dira kalera irteten hasi zirenetik, eta bihar beste jauzi bat eman gura dute mobilizazio handi batez. Astelehenero elkartzen dira herriko plazetan, eta azaroaren 23an Durangaldean egin zuten manifestazioa, 1.000 lagunengatik partaidetzagaz.

Bilboko biharko manifestazioa 17:00etan hasiko da, Jesusen Bihotza plazatik. Besteak beste, 1.080 euroko gutxieneko pentsioa eskatuko dute pentsiodunek kaleetan.

2018 URTE AMAIERAKO LIKIDAZIO BIKAINA

Unitate mugatuak
stock-a edo 2018. urtea amaitu arte

%30-era
**ARTEKO
DESKONTUAK**

%30

7
URTEKO
BERMEA

IBILGAILU BERRIA
8 MODELO AUKERATZEKO

ARRISKU OROTAKO
ASEGURUA **DOAN**
URTEBETE



Hainbat
Km 0
9.000€
ARTEKO
DESKONTUEKIN



KONDIA
www.fordkondia.com

Promozio hauek ezin dira pilatu. Etor zaitez gure kontzesionario batera eta zuk nahi duzun modeloari aplikatutako deskontu eta baldintzen berri emango dizugu. Promozio hau FCE Bank, plc SE-ren bitartez finantzatzeko duten bezeroentzat da. Eskaintza 2018/12/31-ra arte edo stock-eko unitateak amaitu arte da baliozkoa.

FORD KONDIA (EIBAR)
Otaola Etorb., 22. 20600 Gipuzkoa
T. 943 202 091

ZIORLA AUTOAK (IURRETA)
Santa Maña Auzoa, 19. 48215 Bizkaia
T. 946 815 569



Hareek denporak!

Traña-Matienako San Blas hotelak, 50 urteko historia

1960 eta 1975. urteen artean industrializazio jauzi handi bat gertatu zen Euskal Herrian, eta Durangaldea horren lekuko nagusietako bat izan zen. Fabrika ugari zabaldu zituzten, batez ere erreken ondoan. Traña-Matienan, esaterako, enpresa gutxi egotetik 60 egotera pasatu ziren dozena bat urtean, *Traña-Matiena: izen bi, historia bakarra* liburuan kontatzen denez. Elisabeth Alvarez Eulatek idatzitako

ikerketa hori Abadiñoko Udalak argitaratu zuen, 2006an, eta bertakoa da alboko argazkia. Bertan, N-634 errepidearen ondoan mitiko bihurtu den San Blas hotelaren eraikuntza ageri da, 1968an.

Izan ere, fabriken ugaritzeak auzoa eraldatu zuen. Etxe asko altxatu ziren kanpotik etorritako langileentzat, eta hazkunde sasoi horren testuinguruan kokatzen da hotela ere. **M.O.**

Politikan

Goiztidi
Diaz Basterra
EAJ



Guk lana, nahaste-borrasterik ez!

Asko dira urtean zehar ospatzen diren nazioarteko egunak. Urtero bezala, Azokak bere ateak ireki aurretik Euskararen Nazioarteko Eguna ospatu genuen. Aurtan, gainera, Euskaraldiaren amaierarekin bat egin du. Baina abenduan badira beste egun garrantzitsuak ere, eta batzuetan itzalpean geratzen dira.

Abenduaren 3a Euskararen Eguna izan zen, baina Ezgaitasunaren Nazioarteko Eguna ere bada. Horretaz gain, abenduaren 10ean ere Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatzen da. Zein garrantzitsua den pertsona guztiek beraien eskubideak bermatuta izatea. Baina gezurra badirudi ere, 2018. urtean oraindik ez daude pertsona guztien eskubideak bermatuta. Eta halan, ezgaitasunen bat duten pertsonak gaur egun ere diskriminazio egoerak jasaten dituzte.

Horregatik, ondo dago nazioarteko egunak ospatzea, baina egunero izan behar dugu trabak dituztenei laguntzeko erronka. Egunero egin behar dugu lan pertsona guztien giza eskubideak bermatzeko. Denok gara pertsonak eta elkarren ondoan egon beharko genuke, eta ez elkarren aurka. Ondo dago egun batean aldarrikapenak egitea eta ondo dago ahoa berba potoloez betetzea, baina egunero egin behar da lana.

Hori izaten da zaila batzuentzat, errezagoa da berbeekin nahaste-borraste bat egitea eta soilik norberari interesatzen zaionari garrantzia ematea. Ibai nahasian, arrantzaleen irabazia izaten omen da eta badirudi batzuek tinko eusten diotela atsotitzari beraiek sortutako nahaste-borrasteen irabazia ateratzeko asmoz.

Abenduaren 10ean Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatzen da, ezgaitasunaren nazioarteko eguna ospatu eta zazpi egun geroago. Ahulenak dira diskriminazioa eta gizartearen gutxikeriak pairatzen dituztenak. Baina lana egunero egin behar da, pertsonak izan behar dira lehenengo, eta ez norberaren intereserako nahaste-borrasteen sorketa.

Durangaldea asteen

Correoseko motor gidari bat hil da, eta istripua argitzeko eskatu du udalak

Elorrio • Eguaztenean Correoseko motor gidari bat hil zen Elorrioren, lanean zebilela, errepidean autobus bategaz talka egin ostean. Elorrioko Udaleko Bozeraile Batzordeak onartutako adierazpenean, Eusko Jaurlaritzari heriotzaren arrazoiak argitzeko eskatu diote. Gainera, familiaren saminarekin bat egin, eta elkartasuna helarazi diete familia, lagun eta lankideei.

Domekan nekazaritza eta artisautza azoka egingo dute, Kementsuren eskutik

Otxandio • Domeka honetarako, nekazaritza eta artisautza azoka antolatuko du Kementsu elkarteak. Antolatzaileek jakitera eman dutenez, aurtengo azokan 45 postu egongo dira, eta bertaraten direnek mota guztietako produktuak aurkituko dituzte.

Horrez gain, Euskal Herriko urrezko aizkora kopako finalerdia jokoan egongo da Otxandion, 12:00etan.

Gaur zabalduko dute Gozagune, Elorrioko nerabeentzako gune berria

Elorrio • Gaur 17:00etan zabalduko ditu ateak Gozagunek, Elorrioko Udalak 12 eta 16 urte bitarteko nerabeentzat ahalbidetu duen espazio berriak. Gune berri hau Ametsola erabilera anitzeko elkargunean kokatuko da, eta bariku, zapatu eta domeketan egongo da zabalik, 17:00etatik 20:30era arte. Gune berri honen helburua gaztetxoek garapen osoa, gozamina eta autonomia pertsonala bilatzea izango da.

Iritzia

GABONETAKO LOTERIAREN ZAIN?

Urtea amaitzen ari da, Gabonak gainean ditugu... eta umeei Olentzeroren opariak legez itxaroten dugu alokairua ordaindu behar dugun gazteok Durangoko Udalak ematen duen alokairurako diru-laguntza.

Gaur egun 65.000 euroko diru partida gordetzen dute urtero gazteoi emantzipazioan laguntzeko; orain dela 8 urte partida hau 78.000 eurokoa zen; urteak joan urteak etorri, alokairuen prezioak garestitzen eta egunerokotasuneko gastuak handitzen ari direla jakin badakiten arren.

Diru-laguntza honekin, alokairuaren erdia ordaintzen lagunduko omen digute, baina gazte bakoitzari gehienez 250 euro egokitu ahal zaizkio hilean horretarako. Honek esan nahi luke gure herriko alokairuak 500 eurokoak direla gehienez. Durangoko udalak badaki 500 euro baino merkeagoa den alokairu bat aurkitzea ia Gabonetako loteria egokitzea bezain zaila dela?

Urteak daramatzagu esaten diru-laguntza xume honekin ez dela gure herrian etxebizitzarekin dagoen arazo potoloa konpontzen, eta honetarako hainbat proposamen egin ditugu; duela urte pare bat alokairu soziala bultzatzeko udalean sartu genuen mozioa kasu. Baina Durangoko Udalak, betiko moduan, entzungor egiten jarraitzen du.

Aurtan jada marka guztiak hautsi ditu; ez-nahikoa iruditzen arren, emantzipatutako gazteok alokairurako diru-laguntza behar dugu gastuei aurre egiteko, eta, momentuz, ez dakigu honetaz ezer. Gabonetarako Durangoko Udalak ikatza ekarriko al digu? #Pin-BatZuentzat

Luisa Oleaga, Ane Arbeo, Maialen Galarza, Ekaitz Andueza eta Ane Aman-tegi (Zabalduko Ditugu taldearen izenean), Durango

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

DURANGALDEKO ALBISTEAK JASOTZEKO BIDE BERRIAK

Whatsapp bidez
Bidali 'ALTA' 688 635 041 zenbakira whatsapp bidezko mezua bidalita

Telegram bidez
Bilatzailearen bidez 'ANBOTO' kontuan sartu eta egin klik 'HASI' botoian


CERAMICAS MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER
Chimeneas
Cerdas MACOBER
ERAIKUNTZAKO MATERIALA ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

DURANGALDEKO ALBISTEAK JASOTZEKO BIDE BERRIAK

Whatsapp bidez
Bidali 'ALTA' 688 635 041 zenbakira whatsapp bidezko mezua bidalita

Telegram bidez
Bilatzailearen bidez 'ANBOTO' kontuan sartu eta egin klik 'HASI' botoian

@anbotokomunikabideak
anboto komunikabideak



GUALBI
ASESORES

www.gualbiasesores.com

- ✓ *Aholkularitza fiskala*
- ✓ *Kontabilitate-aholkularitza*
- ✓ *Merkataritza eta finantza-aholkularitza*
- ✓ *Lan-aholkularitza*
- ✓ *Kontu-auditoretza*
- ✓ *Aholkularitza juridikoa*

***Bezera, enpresako bere kudeaketa
eta bere gogobetetzea dira gure helburu nagusia***

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO
Tel.: 946 818 636 - Faxe.: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com



jsu
jesuitak
Durango



Ate irekiak

HAURTZAINDEGIAN

Abenduaren 20an,
arratsaldeko 17:30ean

ZATOZ GU
EZAGUTZERA!

INFORMA ZAITEZ!
sanjose@durangojesuitak.org
94 681 00 50



Gurean, biharko ametsak, gaurko erronkak

PLAZAN BAZAN


6

Sartu
www.plazanbazan.eus
web atarian eta
denbora-pasa hauen erantzunekin batera
beste hainbat jolas aurkituko dituzu.

www.plazanbazan.eus
Egilea: Garbine Ubeda (Aiorri)

DOMINO ZATIA

Bete itzazu fitxetako espazio zuriak, domino zati hau zuzena izan dadin.



SUDOKU

Ipini sudoku bakoitzeko letrak
dagokien tokian. Gogoratu hizki
bakoitzak behin agertu behar
duela zutabe, lerro eta lau
laukiko area bakoitzeko.

B			I
L		B	
	A		

ZOPA ala **POZA**?

A			Z
		P	
	Z		
O			

BLAI ala **BILA**?

ZAPI ala **AZPI**?

A	P		
		A	
			I
		Z	



Kiroldegian

Itxurak itxura, zati hauetatik
batzuk ez dagozkio kiroldegiko
irudiari. Zeintzuk dira?



Hartz itxurako bi panpin daude
bertan. Ikusten al dituzu?
Eta pinguoa?

Elkartasun asteburua egingo dute Abadiñon

ELKARTASUNA I Asteburuan, abenduaren 14an eta 15ean, Elkartasun Asteburua egingo dute Abadiñon, preso eta

iheslarien etxeratzearen alde. Denetariko ekintzak prestatu dituzte asteburu honetarako eta, horien artean, herriko Bas-

ke Street Boys eta State Alerta taldeen eta Rise Up talde zornotzarren kontzertua egongo dira, Zalduerrekan, 21:30ean hasita. Zapaturako, egun osoko egitaraua prestatu dute jaialdiko antolatzaileek. Eguerdian, 13:00etan, manifestazioa egingo dute, eta, horren ostean, elkartasun bazkaria.

Barikuan, Euskal iheslari eta deportatuen historia eta egungo egoeraren inguruko hitzaldia egongo da, 19:00etan, Txanporta Kultur Etxean. Hitzaldiaren ostean, luntxa egongo da bertaratzen direnentzat.



Abenduaren 14an

DURANGO ipuin kontaketa
‘Hotzikara’
nagusientzako ipuin erotikoak Ines Bengoaren eskutik, 19:00etan, Bizenta Mogel bibliotekan.

ELORRIO jaialdia
‘Elorrioko Gazte Gozagunea’, luntxa, musika eta giro paregabea,
17:00etan.

DURANGO jaialdia
‘Euskaraldia jaia’ Zea Mays eta Gora Etorri taldeen kontzertuagaz,
20:00etan, Plateruenean.

IURRETA jaialdia
‘Zaldai mendi erronka 2018’ jaialdia, lurretako II. Mendi Astearen barruan,
19:00etan, Askondon.

ELORRIO antzerkia
‘Tendríamos que haber empezado de otra manera’ antzezlan,
20:30ean, Arriolan.

Abenduaren 15ean

IURRETA jaialdia
‘Basatzan’ mendi bizikleta martxa, lurretako II. Mendi Astearen barruan,
10:00etan, Askondoko aterpetik.

IURRETA jaialdia
‘Nordic Walking ibilaldia’, lurretako II. Mendi Astearen barruan,
10:00etan, Askondoko aterpetik.

BERRIZ ipuin kontaketa
‘Sorgina Txirulina’,
12:15ean, Kultur Etxean.

DURANGO jaialdia
‘Aiko bazkari erromeria’,
15:00etan, Plateruenean.

BERRIZ antzerkia
‘Nagare’ ikuskizuna,
19:00etan, kultur etxean.

ELORRIO musika
Dama eta Kohatu taldeen kontzertua,
22:30ean, gaztetxean.

Abenduaren 16an

DURANGO antzerkia
‘Paradigma’ antzezlan,
Bea Insa aktoreagaz, 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

Abenduaren 20an

DURANGO irteera
‘Ruta Belenes’,
nagusientzako irteera, 17:00etan, nagusien udal egoitzan.

Abenduaren 21ean

BERRIZ antzerkia
‘Gu!!!’ antzezlan,
18:15ean, Kultur Etxean.

ZORNOTZA erakusketa
‘40 urte pegatinetan’ erakusketa ibiltaria (abenduaren 23ra arte ikusgai),
Belatxikietan.

Abenduaren 23an

ELORRIO azoka
2. eskuko azoka,
10:00etan, plazan.

ELORRIO antzerkia
‘Linbo Planeta’ Dejabu Panpin laborategiaren eskutik,
17:00etan, Arriolan.

Abenduaren 24an

ZALDIBAR erakusketa
‘40 urte pegatinetan’ erakusketa ibiltaria (abenduaren 26ra arte ikusgai),
Castet elkartean.

Abenduaren 27an

IURRETA musika
‘Beti bizi’ abesbatzaren kontzertua,19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

Abenduko agenda



15

“ZALDAI MENDI TALDEA IURRETAKO II. MENDI ASTEA”

10:00 BASATZAN 2018 lurretako II. Bizikleta mendi martxa.
Izen-ematea: www.kirolprobak.com (5€)
10:00 Nordik Walking Ibilaldia (2 ordu) (9:00etatik aurrera gosaltzeko aukera)
Izen-ematea: HAZ Herritarren Arreta Zerbitzuan (abenduaren 13ra arte)

16

“ZALDAI MENDI TALDEA AITA SAN MIGEL PLAZA”

IURRETAKO II. MENDI ASTEA
09:30 Umeentzako mendi ibilaldia (amaieran, luntxa)

17

“HERRI BILBIOTEKA”

18:00 Emakumeen Literatur Tailerra

18

“HERRI BILBIOTEKA”

Ingeleseko Irakurketa kluba
18:30 "Angela´s Ashes" Frank McCourt
lurretako HAPOaren parte-hartze plana- Ibarretxe Kultur Etxea
19:00 Formakuntza informazio tailerra: Diagnostikoaren ostean, gaur egungo egoera
Abenduko lagunak Goiuria Kultur Gunea "Abendu koplak"
20:00 "Abendu koplak" Entsaioa

19

“HERRI BILBIOTEKA”

10:00 Nagusientzako XL irakurketa kluba
Azalerako ipuinak
16:45 0-18 hilabetekoak
17:30 19-36 hilabetekoak
Basogintza Ibarretxe Kultur Etxea
18:30 Hitzaldia: pinudien gaixotasuna
Zaldai Mendi taldea Goiuria Kultur Gunea
19:00-20:00 Bazkide egiteko eta 2019. urtean federatzeko aukera

ABADIÑO deialdia
‘Gaupasa Durangon’
Abadiñoko gazteek antolatuta. Izena emateko, Errota kultur etxean. Matienako kiosko plazatik Durangora elkarregaz joango dira.

Abenduaren 28an

ELORRIO antzerkia
‘Etena’ Arrapaladan konpainiaren eskutik,
20:30ean, Arriolan.

Abenduaren 27tik 30era

ABADIÑO deialdia
‘Maluta, Durangoko gabonetako zirkua’,
ikuskizuna, 18:00etan, San Agustin kulturgunean.

Abenduaren 29an

DURANGO musika
Federico Gardenghi DJ saioa,
23:00etan, Plateruenean.

Abenduaren 30ean

DURANGO musika
Urteko azken bertso saioa, 22:00etan, Plateruenean. Sarrerak salgai Plateruenean eta Berbaron.

Urtarrilaren 2an

DURANGO erakusketa
‘40 urte pegatinetan’ erakusketa ibiltaria (urtarrilaren 3ra arte ikusgai), Intxaurren.

Zinea

:: Berriz KULTUR ETXEA

• **Keeper**
eguaztana **19:** 19:00

:: Durango ZUGAZA

• **Miamor perdido**
barikua **14:** 19:30/22:00
zapatua **15:** 17:30/19:00/22:30
domeka **16:** 16:30/19:00/21:30
astelehena **17:** 18:30/21:00
martitzena **18:** 20:00
eguaztana **19:** 20:00

• **Mortal Engines**
barikua **14:** 19:30/22:00
zapatua **15:** 17:00/19:30/22:30
domeka **16:** 16:30/17:00/21:30
astelehena **17:** 18:30/21:00
martitzena **18:** 20:00
eguaztana **19:** 20:00

• **Yuli**
barikua **14:** 19:30/22:00
zapatua **15:** 19:30/22:30
domeka **16:** 19:00/21:30
astelehena **17:** 18:30/21:00
martitzena **18:** 20:00

• **Ralph rompe internet**
zapatua **15:** 16:30
domeka **16:** 16:30

:: Elorrio ARRIOLA

• **El Ángel**
zapatua **15:** 20:00
domeka **16:** 22:00
astelehena **17:** 20:00

:: Zornotza ARETOA

• **Robin Hood**
barikua **14:** 20:15
zapatua **15:** 22:00
domeka **16:** 20:00
astelehena **17:** 20:15

ANBOTOk o agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi kultura@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

anboto
komunikabideak



**Hiper Eroski Abadiñon
erosteko modu berri bat**

**Gabon zoriontsuak
opa dizkizuegu!**

EROSKI Abadiño
hipermerkatu
Inoiz baino hurbilago



Gabon jaiak 2018**ABADIÑO**

Abenduak 14, barikua

18:00 Gabonetako Kontzertua. Errota Kultur Etxean.

Abenduak 20, eguna

18:00 Postal lehiaketaren sari banaketa. Errota Kultur Etxean.**20:00 Saskibaloitxapelketa triangeluarra.** Traña-Matienako kiroldegian.

Abenduaren 20tik urtarrilaren 11ra

Gabonetako postal lehiaketan aurkeztutako lanak ikusi ahal izango dira. Errota Kultur Etxean.

Abenduak 22, zapatua

18:00 Umeentzako antzerkia. Sarrera: 1€
Errota Kultur Etxean.

Abenduak 23, domeka

9:30-14:00 Durangaldeko eskola mailako xake txapelketa. Errota Kultur Etxean.

Abenduak 24, domeka

16:30 Olentzeroren kalejira. Traña/Matiena, Muntzaratz, Txanporta.

Abenduak 27-28-29

UMEEN GABONETAKO JOLASLEKUA.**11:30-13:30 / 16:00-20:00 Umeen gabonetako jolaslekua.** 0-9 urte probalekuan / 10 urtetik aurrera Traña-Matienako frontoian.
Autobusa egongo da.

Abenduak 28, barikua

19:30 Gabonetako Kontzertua: Jose Luis Echechipia (Organista) Lucía Gomez (Saxofonista)(Mezzosopranoa). San Trokaz elizan.

Abenduak 29, zapatua

Gabonetako lasterketa Traña-Matienan**11:00** (0-10 urte bitartekoak)**11:15** (11-15 urte bitartekoak)**11:30** (16-100 urte bitartekoak)

Urtarrilak 4, eguna

18:00 Umeentzako antzerkia, LAU

Salto sorkuntzak. Sarrera: 1€

Errota kultur etxean.

Urtarrilak 5, barikua

18:00 Erregeen kabalgada. Muntzaratz, Zelaieta, Traña-Matiena.**ATXONDO**

Abenduak 19, eguaztena

17:00 Ilargian kulunkantari 6 hilabetetik 5 urtera arteko haur eta familiei zuzendutako **ipuin-tailerra**. Udal Liburutegian.

Abenduak 21, barikua

Olentzero eta Mari Domingigaz kalejira, trikitilariekin batera. Ostean, euskal dantzak eta gozoki eta txokolate banaketa.

Abenduak 27, eguna

12:00 Oliver Magoa**17:00-19:00 Txatxilipurdiren eskutik eskulanak eta jolas erraldoiak.**

Abenduak 28, barikua

11:00-14:00 Puzgarriak**BERRIZ**

Abenduak 24, astelehena

Olentzero eta Mari Domingi**9:30** Olakuetako plazan, auzoetara joateko**17:30 Olentzero eta Mari Domingigaz irteera** udaletxetik probalekura. Animatu eta baserritar jantzita etorri!

Urtarrilak 2, eguaztena

Gabonetako haur-parkea**17:00 - 19:30 'INDUSTRIAREN KULKI'.** Probalekuan.

Urtarrilak 3, eguna

12:00-13:30 / 16:00-19:30 PUZGARRIAK. Berrizburu Kiroldegian.

Urtarrilak 4, barikua

12:00-13:30 / 16:00-19:30 "TAILERRAK ETA DISKO FESTA". Probalekuan.

Urtarrilak 5, zapatua

17:30 Erregeen kabalgada komentutik Olakuetako plazaraino joango da. Ondoren, txokolatea hartuko dugu.**DURANGO**

Abenduaren 22ra arte

16:00-21:00 JOSTAILUEN BILKETA. Landako kiroldegiko sotoetan.

Urtarrilaren 6ra bitartean

JAIOZA ERAKUSKETEN IBILBIDEA

Egilea: Luis Ibáñez

1. Lamiak (Montevideo, 2)**2.** Oliver (Montevideo, 3)**3.** Carnicería Astigarraga (Uribarri kalea, 9)**4.** Santa Maria Basilikan jaiotza bi**5.** Ogien artean (Andra Mari kalea, 18)**6.** Pertsona Nagusien kafetegian (Astarloa, 1)**7.** Jaiotza mekanikoa (San Frantzisko kalea, 15 / eguenetik domekara 18:00 - 20:00)

Abenduaren 10etik 23ra

III. GAZTEEN LEHIAKETAREN ERAKUSKETA**Astelehenetik barikura:** 18:00-20:00**Zapatuak, domekak eta jai egunak:** 12:00-14:00 /

18:00-20:00

Durangaldeko Artisten Elkarte / Ezkurdi erakusketa aretoa

Abenduak 14, barikua

19:00 Musika Eskolako Taldeen Gabonetako Kontzertua. Sarrera: 3€

Abenduak 15, zapatua

11:00 Txikigym solidarioa. Noren alde: Asociación de Afectados/as por Enfermedades de sensibilidad Landako 1 kiroldegian.**18:00 XXI. Gabon Kanten Emanaldia.** Gonbidapenak Centro Palentinoan.

San Agustin Kultur Gunean.

Abenduak 16, domeka

11:30 51. Gabon kanten haur eta gazte jaialdia Landako Gunean.**19:00 Antzerkia.** "PARADIGMA".

Sarrera: 8€ / San Agustin Kultur Gunean.

19:00 MUSIKA HAMABOSTALDIA. "BARTOLOME

ERTZILLAREN MUSIKA".

Andra Mariko Basilikan.

GABONAK 2018 ZALDIBAR 2019**Zaldibar**
Elizateko Udala**ABENDUAK 26****SAN ESTEBAN EGUNA**

18:30etik aurrera eskolako pilotalekuan, taloa, txorizoa, urdaia eta goztaina erreak

ABENDUAK 27 eta 28**UMEEN GABONETAKO PARKEA**

12:00-14:00 eta 17:00-20:00 Eskolako kiroldegian

ABENDUAK 31

16:30ean XXI. Olazar pilota txapelketako finalak

17:00etan V. San Silvestre lasterketa.

Hasiera Udaletxeko plazan.

URTARRILAK 1**IGOERA SANTAMARINAZARRERA**

10:30etan talde argazkia eta hamarretakoa tontorrean

URTARRILAK 518:30ean **ERREGEEN DESFILEA** ren hasiera**ABENDUAK 15****HAUR ANTZERKIA: DIN-DIRIN-DI MARI DOMINGI**

17:00etan Olazar pilotalekuan

ABENDUAK 2118:00etan Mari Domingi eta Olentzerori **GUTUNEN** sarien **ZOZKETA** liburutegian**ABENDUAK 23**12:30ean Gabonetako **GIMNASIA ERRITMIKA** ko erakustaldia Olazar pilotalekuan**ABENDUAK 24****BADATOA MARI DOMINGI ETA OLENTZERO HERRI EKIMENA !!**

12:00etan harrera Olazar kalean

12:30ean ongi etorri jaialditxo Zaldia plazan. Eskutitzak eta txupeteak zuzenean emateko aukera

Abenduak 19 eta 20
19:00 EL CASCANUECES
San Agustin Kultur Gunean.

Abenduak 21, barikua
20:15 ORGANO KONTZERTUA LAU ESKUTARA
Andra Mariko Basilikan.

Abenduak 22, zapatua
Izotz-pista Inkastaroetan izena emateko, abenduaren 12tik aurrera Pinondo Etxean.

Gabon jaia
10:00-20:00 Azoka.
17:00-19:00 Haur tailerrak eta jolasak. Andra Mariko Elizpean.
19:00 Meza Santa Anan.
11:30-13:30 / 16:00-20:00 Txu txu trenea
Geltokia: Madalenan
12:00/14:00 GABON KANTEN KALEJIRA
Durangoko Orfeoia eta Jaizale Durangaldeko txistulariak.
12:00/12:45 Ipuin kontaketa ingelesez
"Story Time. The Elf´s inventions" (3-8 urteko umeentzat)
Bizenta Mogel Bibliotekan.
20:00 GABONIA HAMABOSTALDIA. "BARTOLOME ERTZILLAREN MUSIKA"
San Agustin Kultur Gunean.

Abenduak 23, domeka
13:00 Gabon kontzertua. Txistua, pianoa, biolina, haria, metalak eta abeslariak. San Frantzisko Elizan.
16:00 eta **18:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots:** Borobilean. Landako Gunean. Sarrerak Pinondo Etxean abenduaren 17tik aurrera lekua bete arte (gehienez 10 sarrera pertsonako)
18:30 GABONETAKO DANTZALDIA ADINEKOENTZAT ORKESTRAGAZ. Landako I Kiroldegian.

Abenduak 24, astelehena
19:00 Olentzero eta Mari Domingi
Txoritxu Alai dantza taldea, Kriskitin dantza taldea, Tronperri dantza taldea, Inurri Eskaut taldea, Txiri Txiri taldea, Tabira Musika Banda, B. Ertzilla Musika Banda, Jaizale Txistu taldea eta Trikitixa eta Pandero Eskolak. **Irteera:** F.J. Zumarraga Institututik
Ibilbidea: Institutua, F. J. de Zumarraga, Ermodo kalea, Zumalakarregi kalea eta Andra Mariko Elizpea.

Abenduaren 26, eguaztena
11:30-13:30 / 16:00-20:00 Txu txu trenea
Geltokia: Madalenan

Abenduak 27, 28, 29 eta 30
18:00 MALUTA, DURANGOKO GABONETAKO ZIRKUA.
San Agustin Kultur Gunean.

Abenduak 28, 29 eta 30
11:00-14:00 eta **16:00-20:00 GABONETAKO HAUR PARKEA.** Landako Gunean.

Abenduak 29, zapatua
10:00 "EZKURDI ETA KULTURALA" FUTBOL LEHIAKETA SOLIDARIOA
Sarrera bat jostailu bat / Tabira futbol zelaian
Ezkurdi Kirol Taldea eta Durangoko Kulturala

Abenduak 30, domeka
19:30 GABONETAKO KONTZERTUA
Durangoko Orfeoia, Doinu Zahar eta Mallabiko abesbatzak. Santa Ana Elizan.

Abenduak 31, astelehena
SAN SILVESTRE LASTERKETA
17:00 Umeak 0-10 (300 m)
17:15 Umeak 11-13 (1.000 m)
17:30 14 urtetik gora (5.500 m)
Irteera: Santa Ana Plaza
Kirol Errota Taldea

Urtarrilak 2, 3 eta 4

GABONETAKO HAUR PARKEA
16:00-20:00
Umeak doan. Helduak: 1€ - Landako Gunean.

Urtarrila 5, zapatua

ERREGEEN Kabalgada
18:45 Frai Juan de Zumarraga
19:15 Ezkurdi
19:35 Udaletxe plaza
20:15 Andra Mariko elizpea

Urtarrilak 6, domeka
18:00 JAED-EKO ONGINTZAZKO ZOZKETA
Andra Mariko Elizpean.

ELORRIO

Abenduak 26-27-28 / Urtarrilak 2-3-4

HAUR PARKEAK
11:30-13:30 eta 16:30-19:30):
- 2-10 urtekoentzat, Hilario Azkarate frontoian.
- 11-14 urte bitarteko gaztetxoentzat, Plazako frontoiko karpan.

Abenduak 21, barikua
Goizez, Eskoletako umeen Santomas azoka, bertsoak eta Gabon kantak. Herriko plaza.
22:30 Las Ratas eta Papa Lewosky kontzertuak. Ateneo.

Abenduak 22, zapatua
20:00, Berrio-Otxoa Abesbatzaren Gabon kontzertua. Santa Ana kapera.

Abenduak 23, domeka
Goizez, 3R azoka: reduce, reutiliza y recicla
11:45 San Txibiri herri lasterketa (umetxoak).
12:30 San Txibiri herri lasterketa (helduak).
17:00 Umeentzako antzerkia: Linbo Planeta. Arriola Antzokia.

Abenduak 24, astelehena
17:00 Badatoz Olentzero eta Mari Domingi! Herriko Plaza.
18:00 Besaide Dantza Taldea. Herriko Plaza.

Abenduak 25, martitzena
11:30 Basilikako Koruaren emanaldia mezan.

Abenduak 28, barikua
20:30 Arrapaladan Antzerki Taldea: Etena. Arriola Antzokia.

Abenduak 29, zapatua
18:00 Umeentzako antzerkia eta musika: Enaren kontuak. Arriola Antzokia.

Abenduak 31, astelehena
9:00 Erdellakoekin mendira. Urtea agurtzera Atxaurrutxagane eta Gongetara.

Urtarrilak 1, martitzena
9:00 Guztiok Erdellara!

Urtarrilak 5, zapatua
10:00 Intxortarako igoera Gazetatik.
17:30 Errege Magoen gaua. Elizpea.
22:30 Luhartz, berakatz-zopa eta txokolatea Gazetan.

Urtarrilak 6, domeka
Gazetako Erregenak. Egunez, meza, dantzariak, trikitilariak, herri kirolak eta umeentzako jolasak.

GARAI

Abenduak 24, astelehena
10:00 Olentzero eta Mari Domingi gaz kalejiran auzorik auzo

Abenduak 10 - 18

IURRETAKO GUTUN- POSTAL LEHIAKETA
Lanak entregatzeko epea: abenduaren 10etik 18ra

Abenduak 18 - 20

20:00 ABENDUko KOPLÉN ENTSEGUA. Goiuria kultur gunean.

Abenduak 21, barikua

OLENTZERORI GUTUNAK, eta gero, Txotxongiloak. Ibarretxe Kultur Etxean.

10:00 TXOTXONGILOAK: Hiru lumak (2- 3 urte)

LAU Vivaldiren lau urtaroretan oinarrituta. Maiztegi Herri Eskolan.

10:15 4-5 urte eta 1. maila
11:30 2. 3. eta 4. mailak

19:00 HELDUENTZAKO IPUIN KONTALARIA Matamala. Ibarretxe Kultur Etxean.

Abenduak 22 - 26

11:30-13:30 / 16:00-20:00 Txu txu trenea
Korreoseko geltokian

Abenduak 23, domeka

10:00 ABENDU KOPLAK. Koplak abestuko dituzte etxerik etxe. Irteera Aita San Migel plazan.

Abenduak 24, astelehena

11:30 Olentzero eta Mari Domingiri itxaroten Alta San Migel Plazan.
Ondoren, KALEJIRA Askondoraino trikitilariekin alaiturik
12:00 OLENTZERO eta MARI DOMINGIRI harrera. Ondoren, ume guztiak batera, familia argazkia aterako da.
Elkartasun azokako otzararen zozketa.
Gutun-postalen eta erakusleihu lehiaketan sari-ematea.
Zatoz baserritar jantzita!

Abenduak 26 - 27 - 28

11:30-13:30 / 17:00-20:00 UMEENTZAKO GABONETAKO PARKEA. Ludoteka, puzgarriak, tailerrak. Olaburu frontoian.

Abenduak 27, eguena

19:00 Beti bizi abesbatzak abenduko kontzertua eskainiko du. Ibarretxe Kultur Etxean.

Urtarrilak 2 - 3

GABONETAKO TAILERRAK
Eskulanak: 5-7 urtekoak
Papera eta artaziak: 8-12 urtekoak
10:00 Kirijami tailerra.
11:30 Liburu markagailua tailerra.
Ibarretxe Kultur Etxean.

Urtarrilak 3, eguaztena

18:30 Imanol Ituño Magoa: **MAGIA PARRASTAN.** Askondon.

Urtarrilak 4, eguaztena

IPUIN-KONTALARIA: Maite Arrese Yogipuinak
11:00 5-7 urtekoak
12:00 8 urtetik gorako haurrak

Urtarrilak 5, zapatua

17:30 ERREGE MAGOEN kabalgada. Askondon.

IZURTZA

Abenduak 18, martitzena

7:00-19:00 Eskulan tailerra. Jubilatuen lokalean.

2019
Durangaldeko egutegia



2€

Gabon jaiak 2018**MALLABIA**

Abenduak 22, zapatua

11:00 Gabon kantzak baserriak baserri abesten
19:00 Ipuin Kontalaria: Amaia Arriaran. Mari Domingi eta bere istorioak. Kontzejuzarrean.

Abenduak 24, astelehena

18:30 Olentzero eta Mari Domingi, plazan

Abenduak 27, eguna

19:00 Audiobisuala eta txarla "Alpinismo en femenino". Kontzejuzarrean

Abenduak 28, barikua

17:15 Zinema. Kultur Etxean

Abenduak 30, domeka

9:00 Frontenis maratola. Frontoian

Urtarrilak 2 - 3

11:30-13:30 / 16:30-19:30 Haur-parkea: puzgarriak, junping-a... Frontoian.

Urtarrilak 2, eguaztena

19:00 Guadalquivir film-dokumentala. Kontzejuzarrean.

Urtarrilak 3, eguna

19:00 Hitzaldia "Nikaraguako gazteentzako Unibertsitaterako bekak"

Urtarrilak 4, barikua

17:15 Zinema. Kultur Etxean.

Urtarrilak 12, zapatua

9:30 Futbito-txapelketa. Frontoian.**MAÑARIA**

Abenduak 15, zapatua

10:00 SEXUALITATEA UME ETA NERABEEN MUNDUAN
4 urtetik gorako ume eta nerabeentzat, taldeak adinaren arabera antolatuko dira.

19:30 GABONETAKO ABESBATZEN KONTZERTUA. Andra Maria eleizan.

Abenduak 16 eta 27

UMEENTZAKO ZINEMA. Udaletxeko pleno aretoan.

Abenduak 16, domeka

14:00 SANTA LUZIA EGUNA BAZKARIA. Errekondo tabernan.

Abenduak 18, martitzena

18:00 IPUINAK DANTZAN. Liburutegian.

Abenduak 23, domeka

09:00-13:00 ETXERIK - ETXE OLENTZERO ABESTERA

Abenduak 24, astelehena

18:00 OLENTZERO eta MARI DOMINGIREN ONGI ETORRIA. Mañariko plazan.

Abenduak 26-27-28 eta Urtarrilak 2-3-4

NEGULEKUAK

4-17 urte bitartekoentzako tailerrak. Asteka apuntatu behar da eta gehienez 30 ume apuntatu daitezke. Ordutegia: 9:00etatik 13:30era.

Prezioa: Astea elkartekideentzat 45€ eta elkartekide ez direnentzat berriz, 75€.

Elkarteko kideek Abenduak 10era arte daukate apuntatzeko epea eta Elkartetik kanpokoek, abenduaren 10etik 14ra bitartean.

Urtarrilak 5, zapatua

17:00 Erregeak herriko gaixo eta ezinduak bisitatzera joango dira.**18:30** Txokolate beroa banatuko da. Plazan**19:00** Erregeak plazara helduko dira eta opariak banatuko dituzte.

Erregeentzat "eskutitza" parroikiko saloira eraman beharko da

17:00etatik 18:00etara.**OTXANDIO**

Abenduak 14, barikua

19:00 A.B.K.O (aldi baterako kultur ola): inaugurazioa
Ikus-entzunezkoak, argazkigintza, musika eta arte plastikoak uztartuko dituen erakusketa. Bolaleku aretoan.

Abenduak 15, zapatua

18:30 Musika jam saioa. Bolaleku aretoan.

19:00 Gabon kantaldia (aurten Aramaion): Legutio, Aramaio, Arrasate eta Otxandiokoen arteko kantaldia.

Abenduak 16, domeka

11:00 BASERRIKO PRODUKTUEN ETA ARTISAUTZA AZOKA**17:30 Umeentzako zinema euskaraz:** MARMADUKE**18:30 Musika jam saioa.** Bolaleku aretoan.

Abenduak 21, barikua

18:00 Argitxo eta Anbrosi umeen eskutitzak batuko dituzte kontzejupean. Ondoren, txokolatea.

Abenduak 22, zapatua

11:00 STOP MOTION TAILERRA. Bolaleku aretoan (10 urtetik gorakoentzat zuzendua, argazkien bidez sorturiko pelikula sortzea)

16:30 GABONETAKO OSPAKIZUNA OTXANDIOKO**EGOITZAN Pasealeku****19:00 Antzerkia gimnasioan:** ZOAZ BAKE SANTUAN!

Abenduak 23, domeka

09:00 Mendi irteera: IZKI

Abenduak 24, astelehena

19:00 Olentzero eta berarekin herriko txistulari eta Oihandi abesbatzak **herriko kaleetatik zehar gabon kantuak** abestuz. kontseilupean amaituko da.

Ondoren, gure herriko ohiturak bizirik mantenduz ardo beroa eta gaztainerreak Pasealeku jubilatuko elkartearen txokoa.

21:30 Gabonetako errifaren zozketa.

Abenduak 28, barikua

19:00 ORAIDXE Otxandioko zine festibala. Bolaleku aretoan

Abenduak 29, zapatua

22:00 Nagusientzako zine proiektzioa. Bolaleku aretoan.

Abenduak 30, zapatua

18:00 Umeentzako zine proiektzioa. Bolaleku aretoan

Abenduak 31, astelehena

09:30 Urteko azken **mendi irteera** Arangio mendira (1.102m)**17:00 HERRI KROSA**

Urtarrilak 3, eguna

12:00 Haur antzerkia gimnasioan

Urtarrilak 5, zapatua

11:00 Argazki rallya: Koldo Lopez de Lacalleren omenez**18:00 Diapositiba emanaldia.** Bolaleku aretoan**ZALDIBAR**

Abenduak 15, zapatua

17:00 HAUR ANTZERKIA: Din-dirin-di Mari Domingi. Olazar pilotalekuan

Abenduak 21, barikua

18:00 Mari Domingiri eta Olentzerori GUTUNEN sarien ZOZKETA. Liburutegian.

Abenduak 23, domeka

12:30 Gabonetako **GIMNASIA ERRITMIKO**ko erakustaldia. Olazar pilotalekuan.

Abenduak 24, astelehena

Badatoz Mari Domingi eta Olentzero Herri Ekimena!**12:00** Harrera. Olazar Kalean.

12:30 Ongi etorri jaialdiboa Zaldia plazan. Eskutitzak eta txupeteak zuzenean emateko aukera.

Abenduak 26, eguaztena

San Esteban eguna

18:30 Taloa, txorizoa, urdaia eta gaztaina erreak. Eskolako pilotalekuan.

Abenduak 27-28

UMEEN GABONETAKO PARKEA**12:00-14:00/ 17:00-20:00** Eskolako kiroldegian.

Abenduak 31, astelehena

16:30 XXI. Olazar pilota txapelketako finalak**17:00** V. San Silvestre lasterketa. Hasiara Udaletxeko plazan.

Urtarrilak 1, astelehena

Igoera Santa Marina zaharra**10:30** Talde argazkia eta hamarretakoa tontorrean

Urtarrilak 5, zapatua

18:30 ERREGEEN DESFILEA**ZORNOTZA**

Abenduak 15, zapatua

16:00 GABON KANTEN EMANALDIA. Larrako eleizan.**20:00 GAUERO "Not in my town" GALA.** Zelaietan.

Abenduak 21, barikua

20:15 GABONETAKO KONTZERTUA. Zornotza aretoan. Sarrera: 3€

Abenduak 22, zapatua

20:00 "Nun ikusiot nik zure aurgegixe" 2018. Zelaietan

Abenduak 23, domeka

MESIAS SARRITAN**12:30** Herriko zehar**13:45** Kalbario

Abenduak 24, astelehena

9:30 XVI. BELATXIKIETARA IGOERA. Zelaieta parkean**18:00 OLENTZERO.** Herriko plazan

Abenduak 26, eguaztena

12:00-14:00 ZINEGABONAK: Stopmotion tailerra. Zornotza aretoan. Sarrera:1€

Abenduak 26-30

11:30-13:30 / 17:00-20:00 GABONAK OLGETAN (0-3 urte) Zelaieta zentroan.

17:00-21:30 GAUERO GABONETAN (+10 urte) Zelaieta zentroan.**11:30-13:30 / 17:00-21:00 GABONETAN JAI.** Sarrera:3 €

(bost egunetarako 10€) Zelaieta zentroan.

Egunero 19:00etan ikuskizuna doan

Abenduak 28, barikua

20:15 Los últimos visitantes. Sarrera:12€ (bazkideak doan) Zornotza Aretoan.

Abenduak 29, zapatua

12:00 ZINEGABONAK: "Albert". Sarrera:1€. Zornotza aretoan

Abenduak 30, domeka

12:00 ZINEGABONAK: "Axel heroi txikia". Sarrera:1€. Zornotza aretoan.

Egun guztian zehar AI DAE KLASIKOEN RALLYA. Zubiondo plazan.

Abenduak 31, astelehena

16:30 SAN SILVESTRE LASTERKETA. Zelaieta parkean.

Urtarrilak 2, eguaztena

20:00 "GAU MAGIKOA" MUSIKALA. Zornotza aretoan. Sarrera: 10€

Urtarrilak 5, zapatua

18:00 ERREGEEN KABALGADA. Gudari-Herriko plaza

Urtarrilak 6, domeka

19:00 ZORNOTZAKO NAZIOARTEKO KROSA. Jauregi-barria parkea

Urtarrilak 7, astelehena

19:00 "JULIETAS ROMEO CIRCO". Zornotza aretoan. Sarrera:8€

Urtarrilak 11, barikua

20:15 "JULIETAS ROMEO CIRCO". Zornotza aretoan. Sarrera: 8€

Olio aldaketa - Pneumatikoak (marka guztiak)
- Balazta-pastillak - Motelgailuak

Bi pneumatiko edo
gehiago erosteagaitik
gabonetako otzara opari!

Uribitarte Industr. 6 48220 MATIENA-ABADIÑO
(Hiper Eroskiren ondoan)
Tel.: 946 232 520 - Faxe: 946 203 622
www.neumaticosetxebarria.com



GABONETAKO ENBORRA

Elaborazioa:

Lehenbizi trufa egin behar da, gero, gutxienez, 12 ordu egon behar baita geldi. Jarri esne-gaina irakiten azukreagaz batera, eta irekinda-koan bota parte bat txokolatezko estalduraren gainera. Itxaron beroak txokolatea urtu arte, eta gero mugitu hagatxoekin. Egin hori birritan esne-gaina amaitu arte. Utzi epeltzen eta sartu hozkailuan, gutxienez 12 ordu edo hurrengo egunera arte.

Egin almibarra uragaz eta azukreagaz, eta gorde.

Aurretik labea berotu 210 gradutan.

Jarraitu xafla-bizkotxoaren errezetaz. Horretarako, irabiatu arrautzak azukreagaz, tamaina bikoiztu arte, irinak eralki bitartean (iragazkitik pasatu). Azukredun arrautzak prest daudenean, gehitu irina apurka, eskua zabaldua, dena ondo batu arte.

Jarri laberako erretilu bat, itsasten ez den papera gainean duela, eta zabaldu bizkotxoa zentimetro bateko lodiera hartu arte (ez oso lodia). Sartu labean 210 gradutan. Eduki labean 5 minutu eta utzi hotzitzen moldea kendu aurretik.

Behin hotzitutakoan, kendu itsasten ez den papera eta eutsi bizkotxoaren azpian. Busti bizkotxoa almibarragaz eta jarri esne-gain hotza azukreagaz batera hagatxo batez, marka sendoak uzten dituela ikusi arte. Zabaldu esne-gaina bizkotxoaren gainean, zentimetro erdi hartu arte.

Bitartean, trufa jartzen has zaitezke, esne-gainagaz egin bezala.

Esne-gain harrotua ondo zabaldutakoan, kiribildu enborra aurretik erabiltako paperaren laguntzagaz, eta sakatu kiribil itxura emateko. Behin kiribilduta, zabaldu trufa harrotua gainetik, eta tresnatxoren batez egin marra batzuk gabonetako enbor baten itxura emateko. Kito. Hortxe duzu!



Gozatu taldea
GOZATU GOZOTEGIA - DURANGO

OSAGIAK

Bizkotxo-xaflarako osagaiak:

- 4 arrautza
- 120 gramo azukre zuria
- 120 gramo irin mehea

Osagaiak trufarako:

- 500 ml esne-gain harrotua %31,5 MG
- 150 gr txokolatezko estaldura Varlhona %54
- 40 gr azukre zuria

Barrubetea: esne-gain harrotua:

- 250 ml esne-gain harrotua %35,1 MG
- 35 gr azukre zuria

Almibarrerako:

- 250 ml ur
- 250 gr azukre zuri

on egin!

katerin ardoak
inaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotea

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

Bizkarra
Jatetxea

Urkiola auzoa, 4-6 ABADIÑO
Tel.: 946 812 026
burdi-kurutze@hotmail.com

Gabonetan janaria prestatzeko astirik ez?
Guk lagunduko dizugu
Etxera eramateko janaria, betikoa, etxeakoaren modukoa






ATXARTE
Mendiko denda

Madalenoste 7
DURANGO
Tel.: 946 550 455
www.atxartemendikodenda.com



Folder

Zumalakarregi kalea, 10
DURANGO
Tel.: 946 21 73 42
www.folder.es

GABONETAKO ORDUTEGIA

Astelehenetik- ostiralera:
9:00-13:30 / 16:00-20:00

Larunbata:
10:00-13:30 / 17:00-20:00

“Ekarri zuen gutuna Olentzerorentzat”




BIKE & SNOW
UNDARRI

Bizikleta salmenta, konponketa eta mantenua
Eski eta elur oholen konponketa

Bidebarreita N° 5 | 48215 -JURRETA (BIZKAIA)
94 681 78 08 | www.undarri.eus

10. urteurrena




GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Erosi zure errege-opila eta aurkitu barruan 100 eurora arteko billeteak!






bed's

KOLTXOIAK - OHE OINARRIAK
BURKOAK - OHEKO ARROPA

Zure premiei erantzuteko prest egongo gara:
bed's koltxoi-denda
Alluitz, 1 - Durango
944 005 980






hitz
liburudenda

Artekaleara, 23
DURANGO
Tel.: 946 810 776
info@hitzliburudenda.com

Nesken arteko Gabonetako futbol txapelketa egingo dute lehenengoz Zaldibarren, Geu Be elkartearen alde

Abenduaren 30ean egingo duten txapelketagaz, “neskak futboleant jokatzerat animatu” gura dituzte Zaldia kirol elkarteak



Iaz Caritasi, Aspanovasi eta La Cuadri del Hospiri eman zieten dirua.

ZALDIBAR • ANBOTO

Laugarren urtez, Zaldia kirol elkarteak ongintzazko futbol txapelketa antolatu du Zaldibarren, lehenengoz Maribi Urizarren omenezko memoriala ere izango dena. Aurtengoz, Geu Be elkartearen aldeko izaeragaz, nesken arteko txapelketa ere jokatuko dute lehenengoz.

Taldeak 14 urtetik gorako neskek osatu behar dituzte, eta izen-emaitea hilaren 15era arte da

Kimuen mailako hamabi taldek Maribi Urizarren Oroimenezko I. Memoriala jokatuko dute

Abenduaren 30ean jokatuko dute nesken arteko Futbol 7 txapelketa Soloberrian. Egun osoko

futbol maratonia egin gura dute antolatzaileek, eta, gutxienez, hamabi taldek parte hartzea gura lukete. Taldeak 14 urtetik gorako neskek osatu behar dituzte, eta izen-emaitea hilaren 15era arte da. “Neskek futboleant jokatzerat animatu gura ditugu, eta nesken futbola ikustarazi. Durangaldean nesken futbola sustatu gura dugu”, dio Zaldia Roberto Terrobak.

Bestalde, kimuen mailako hamabi taldek hilaren 29an jokatuko dute. Zaldibar, Bilbo, Zeanuri, Eibar, Iurreta, Elorrio, Ermua eta Mungia-ko gaztetxoek parte hartuko dute. Taldekako saioa egingo dute, 09:30ean, eta lehenengo biak hurrengo saiora pasatuko dira. Besteek kopa jokatuko dute.

Geu Berentzat dirua batzeko, errifa aterako dute: urdaiazpiko bat, Eibar taldeko kamiseta bat eta otsailean jokatuko den Athletic-Bartzelona futbol partidurako sarrera bi emango dituzte. Aurreko edizioetan Caritasi, Aspanovasi eta La Cuadri del Hospiri eman zieten batutako dirua.

Gabonen atarirako, tonbola antolatu dute Berrizen, eta jostailu azoka Zornotzan

BERRIZ / ZORNOTZA • ANBOTO

Herriko emakume talde batek antolatuta, gaur tonbola solidarioa zabaldu dute Berrizen. Domekara bitartean, goiz eta arratsaldean, askotariko 1.350 sari zozkatuko dituzte euro baten truke. Batutako dirua Mexikon, Venezuelan eta Kongon dauden

Herriko emakume talde batek antolatuta, gaur tonbola solidarioa zabaldu dute Berrizen

hiru misiolari laguntzeko emango dute. Dena dela, zati bat elizako gastuetarako eta Caritasentzat gordeko dute. Tonbola osatzeko izan duten “laguntza handia” eskertu dute antolatzaileek.

Bestalde, Jostailuen I. Azoka Solidarioa zabalduko dute Zornotzako Larrea ikastetxean, hilaren 17tik 20ra, Caritas elkarte-ari testigua hartuta. 16:30etik 18:00etara izango da azoka.



Fraai Juan Zumarraga, 17 DURANGO

SIMPLY Merkatal zentrua DURANGO

Gudari kalea, 49 ZORNOTZA

San Juan kalea, 13 EIBAR

afede



Gure Jostailu Denda


29,95€

EMMA PANPINA
45 ZM NEURTZEN DITU EUSKARAZ
MINTZATZEN
DA, 6 ESALDI EZBERDIN ENTZUN
DEZAKEZU.


19,99€

BAZEN BEHIN BIZITZA
GIZA GORPUTZARI BURUZKO 2.200
GALDERA-ERANTZUN, 5 ATALETAN
BANATUTA


24,99€

OLENTZERO GABON
KANTA ABESTU ETA
DANTZATU


19,95€

PARTY & CO. JUNIOR
560 PROBA GALDEREKin
EUSKARAZ


9,99 €

ZEIN DA ZEIN?
ASMATU AURKARIAREN ANIMALIA-
TXARTELA


29,99€

EUSKOTREN TREN
ELEKTRIKOAK
NEURRIAK: 150X100 ZM. PISTAREN
LUZEERA 3,9M


24,95€

ESFERA FISIKO-POLITIKOA
ARGIAREKIN.
30zm


29,99€

CATAN EUSKARAZ
ESTRATEGIA ETA ABILEZIA JOKOA


19,99 €

KONEKTATU HEZIGARRIA:
LOTU GALDERA BAKOITZA DAGOKION
ERANTZUNAREKIN (352 GALDERA)

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Iazko irailean Durangoko Tabira Bandaren zuzendari makila hartu eta norabide berri bat ematen saiatu da hasieratik Luis Orduña. Durangoko XXIX. Musika Hamabostaldirako, kontzertu berezia prestatu du bandagaz. Bartolome Ertzilla durangarraren ekarpena aitortzea helburu duen kontzertu bakarra, hain zuzen ere.

Nondik dator proiektu hau sortzearen interesa?

Egile bat bizirik dago bere obra interpretatzen denean, edo ezagutzen denean edo aitortzen denean. Eta lan hau leku batzuetan hobeto egiten da beste batzuetan baino. Vianan, adibidez, Strauss anaiak laudatu egiten dituzte; urtero kontzertu bat egiten dute euren obragaz. Milioika zalek ikusten dute eta euren musika ezagutzera ematea lortu dute. Ertzillaren kasuan, ostera, musika eskolaren izena darama, kale bat du, baina jendeak *Mesias Sarritan* baino ez du ezagutzen.

Nor zen orduan Bartolome Ertzilla?

Hona etorri aurretik, nik ere *Mesias Sarritan* baino ez nuen ezagutzen, baina iruditzen zitzaidan abesti hain polita ezin zela izan bere sorkuntza bakarra. Musikologian doktoretza egiten ari naiz eta bere garaikidea den Eduardo Mokoroa konposatzaile tolosarraren ibilbidea aztertzen ari naiz. Beraz, Ertzilla aztertzeari ere ekin nion. Han eta hemen ikertzen, 61 konposizio aurkitu ditut. Ez da lan erraza, XIX. mendean guztia prekarioagoa zelako.

Bere familiak ospea zeukan: aita Durangoko alkatea izan zen, eta Bernardino anaia ere bai. Ibilbide profesional garrantzitsua izan zuen Bartolomek, Durangoko Banda sortu zuen, eta bertako zuzendaria izan zen. Horrez gainera, pianoa ere jotzen zuen, oso ondo antza, eta orfeoiko zuzendaria izatera iritsi zen; Bilbon Amistad elkarteak antolatzen zituen jardunaldi musikaletan ere parte hartzen zuen. 35 urteagaz hil zen. Hain heriotza goiztiarra izan ez balu, haratago joango zela sumatu daiteke.

Zelako garrantzia du obra honek Tabira Bandarentzat?

“Heriotza goiztiarra izan ez balu, Bartolome Ertzilla harago iritsiko zela sumatu daiteke”

Bartolome Ertzillaren obra errepasatuko du Tabira Bandak domekan, abenduak 16, Andra Marian 19:00etan eskainiko duen kontzertuan; Vanessa Goikoetxea sopranoak eta Andeka Gorrotxategi tenoreak ere parte hartuko dute zati bi izango dituen ikuskizunean



**Luis Orduña
Ridruejo**
Tabira Bandako
zuzendaria
Barañain | 1980

Gustura hartu zuten eskaintza. Bartolome Ertzillaren errepertorio hau grabatu egingo dugu, eta hori oso garrantzitsua da. Hori, bere horretan, itzela da, baina, gainera, Aurelio Martinezegaz grabatzea ikaragarria da. Eta ez hori bakarrik, Andeka Gorrotxategi eta Vanessa Goikoetxea abeslariak edukitzea sinestezina da. Hobeto edo okerrago egingo dugu, baina hau historiako geratuko da, eta kontuan hartu behar da amateurrek garela.

Eta, orokorrean, pozik zaude Tabira Bandan daramazun urtebeteagaz?

Talde oso langilea da, eta hainbat proiektu lantzeko gogoz dagoena

Durangoko XIX. mendeko soinu bandari aitortza

Domekako kontzertua zerbait bada, berezia izango da. Baina Bartolome Ertzillaren ibilbidea aitortzeko proiektuak beste atal batzuk ere baditu. Errepertorio bera jo eta su entseatzen aritu ostean, grabazioa egin du bandak, etorkizunean kaleratu eta zabaltzeko. "Kontzertua bere horretan egitea oso handia da, baina grabazioa hor gera-

tuko den zerbait da", azaldu du Orduñak. Ertzillaren ibilbideari aitortza egiteko modua dela ere definitu du zuzendariak. "Durangar guztiek etxean eduki beharreko zerbait izango da". Horrez gainera, Tolosa eta Viena hirien eredua goraiatu gura izan du, besteak beste artistak aitortzeko egiten duten lanagatik.

beti. Niri asko gustatzen zait hori. Egon naizen gainontzeko bandetan hori egiten saiatu naiz, beti zerbait berria egiten eta eskaintzen. Iaz, adibidez, gure lehenbiziko kontzertuan *Mesias Sarritan* jazz klabeen eskaini genuen. Oso bertsio berezia izan zen, eta hor hasi zen Bartolome Ertzillaren errepertorioa lantzeko ideia.

Oraindik ezin dizut ezertxo ere aurreratu, baina beste proiektu berri batzuetan ere ari gara lanean. Musikarientzat zein publikoarentzat erronka berriak jartzea oso garrantzitsua da. Musika bandek, tradizionalki, gauza bera egin dute beti, baina hori, konpetentziarik ez zutelako izan da. Askotan errepikatu dudana gauza bat da hori.

“**Musikariarentzat zein publiko berriarentzat erronka berriak jartzea oso garrantzitsua da**”

Durangoko Bandak meza ostean jotzen zuen, eta ekitaldi biak beteta egoten baziren, beste egitekorik ez zegoelako da. Egun, etxetik irten barik ere aisialdi eskaintza oparoa duzu. Adibidez, Berlingo Orkestraren sozioa izan zaitezke, etxetik irten ere egin barik. Beraz, publikoari zerbait berria eskaintzea da gakoa. Gure kasuan, ikuskizun bakarrak eskaintzen ditugu. Hau, orain ikusi ezik, ez duzu inoiz ikusiko. Ni obsesionatu egiten nau publikoaren gaiak; izan ere, guretzat oinarritzakoa da dugun publikoa mantentzea, eta ahal izanez gero, kopurua handitzea.

Gonbidatu ezazu banda inoiz ikusi ez duen lagun bat.

Durangar batek ezin du inolaz ere ikuskizun hau galdu. Ez bakarrik musika bera oso polita delako. Kuriositateagatik bada ere, etorri egin behar dira, Durangok sasoi hartan zelako doinua zuen jakiteko. Azken finean, Durangoko soinu banda zen Ertzilla garai hartan, ezagutu beharrekoa.



ALDEKOA-OTALORA iturgintza
ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA
info@aldekoaotalora.com - 692 859 779
Zubiaurre, 8 **IURRETA** - 946 202 768
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 **ABADIÑO** - 944 071 791



uxarte
SAGARDAOGINTZA
Montorra, 6 ZORNOTZA - Tel.: 946 308 815
www.uxarte.com

**ZABALIK
OSTIRALETAN ETA
ASTEBURUETAN**

**ASTEAN ZEHAR
ENKARGUZ**
Gutxienez 15
laguneko taldeentzako



Arribe
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

Aime Morales venezuelarrak parte hartuko du 'Maluta' gabonetako zirkuan

Abenduaren 27an izango da lehenbiziko emanaldia, eta 30era arte iraungo du zirkua



Aime Morales, bere ikuskizun batean.

DURANGO • ANBOTO

Akrobazioak, malabareak, ustez ezinezkoak diren trebeziak eta umorea. Guztiak batuko dituen *Maluta* jaialdiak zirkua karpia erraldoi bihurtuko du San Agustin aretoa. Aurtun, laugarrenez. Birtuosismoz, poesiaz eta umorez jositako lau ikuskizun eskainiko dituzte hainbat tokitatik etorritako zirkua artistek, abenduaren 27tik 30era, 18:00etan.

Bost artistek parte hartuko dute, eta munduko hainbat txokotatik datoz

'Maluta' jaialdiak zirkua karpia erraldoi bihurtuko du San Agustin aretoa

Bost artistek parte hartuko dute San Agustin Kultur Guneak eta Ganso&Cia konpainiak antolatutako jaialdi honetan: Aime Moralesek (Venezuela), Maria Villatek (Bizkaia), Maitane Azpiroz (Nafarroa), Laia Salesek (Valentzia) eta Francesco Caspanik (Italia). Adin guztietako publikoa gonbidatu dute ikuskizunera.

Geure Durangaldea

Garazi Mugarza Markina
Erizaina



Tour La Manada

Webgune bat ireki omen zuten Iruñeko Alde Zaharrean doako bisita gidatuak eskaintzen zituen hil bakoitzaren azken asteazkenean. Interesa zuen ororentzako, argazkia ateratu zuten lekutik hasita, gau horretan gertatutakoa deskribitzeko aukera ematen zuten; 20 minutu etengabeko eta min haiek jazotako irudikatuz, noski, eta bukatzeko, poliziak identifikatu zituen lekuan amaitu. Gura zuenak, gainera, soinean zeramaten kamiseta edo euren baten tatuajea erosteko aukera ere izango luke. Aho bazarrik eta lotsarik gabe bota dute sustatzaileek: tour horren helburua emakumeen aurkako indarkeria salatzea da.

Konturatu zarete abisatzen ari direla? Isiltzen ikasi behar du gura esateko mehatxu moduko bat da, alegia, ondo dakite euren bortxak ez duela zigorrik; sare sozialetako protagonista bihurtu dira berriz.

Batzuetan nahiago dute nire burbuilan bizi, zoriontsu nintzela ez nekien garaian lez, denak zirudien egiazkoagoa. Nahiago dute hala bizi itxuraz bestelakoa iruditu arren gero eta jendarte homofobo eta misoginoago bat sufritu baino; ze, emakumeen gorputzek jarraitzen dute bortxa-eremu instituzional izaten.

Berdin dit zenbat urte egingo dituzten kartzelan, zigor juridikoa baino askoz boteretsuagoa da berez mespretxu soziala. Eta, hala ere, joan den udako ekainean "manada berria" sortu zen Kanaria Handian.

Zigorra eta estigma, biak bortxatua izan den emakumearentzat. Eta zerrendak etengabe doaz luzatzen; bat, bi, hiru emakume. Alferrik gabiltza beranduegi denean zergatiak bilatzen jarraitzen badugu.

Elorrioren sustraiak aztertzen dituen liburua aurkeztu dute

Ricardo Ajuria historiatsailea da liburuaren egilea, eta ilustrazioak Aiert Zubigarai egin ditu

LITERATURA • A.M.

1053. urtean San Agustin zenetik 1356. urtean Elorrio izatera igaro zeneko sasoia ardatz hartuta, garai hartako Elorrio zelakoa zen irudikatu gura izan dute Ajuria eta Zubigarai euren liburuan. "Urruneko iragan historikoaren ikerketa funtsezko tresna da hurbileko orainaldia behar bezala ezagutzeko.

Horretaz jakitun garelara, gure iritziak, irudiz hornitutako zertzelada batzuk eman gura ditugu historiaren inguruan", azaldu du Ajuria. "Eduki dugun informazioagaz, herritarren arropak ilustratzen saiatu gara, besteak beste", gaineratu du. Egileen berbetan, Elorrio izan aurretik San Agustin izan zela jakitea komeni dela uste dute.



Ajuria, Zubigarai eta Maitane Lopez zinegotzia, aurkezpenean.

www.plateruena.eus

PLATERUENA

PLATERUENA Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jaletxea@plateruena.net

Abenduak 14 · 20:00etan
EUSKARALDIA JAIA (ZEA MAYS)
Kontzertua

Abenduak 15 · 15:00etan
AIKO BAZKARI-ERROMERIA
Kontzertua

Abenduak 29 · 23:00etan
FEDERICO GARDENGHI
Kontzertua

ABENDUAK 15
18:00 GABON KANTAK
Centro Palentino Castellano Leonés

ABENDUAK 16
19:00 PARADIGMA
Bea Insa

ABENDUAK 19 eta 20
19:00 EL CASCANUECES
Ballet Joven de l'Atelier

ABENDUAK 22
22:00 UN MUSICO ENTRE LA NIEBLA
XXIX Musika Hamabostaldia

ABENDUAK 27, 28, 29 eta 30
18:00 MALUTA
Aime Morales - Maria Villate - Maitane Azpiroz - Lola Sales
Francesco Caspani - Ganso & Cia

San Agustin KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA

Sanagustinalde, 12
Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango.eus



Irigoien anaiak Marokon, lasterketarako prestatu duten Audi A4-agaz.



Eneko Barroeta 'Barru' eta Arrizen Sagarduy azpitxapelketa ospatzen.

Marokoko raid desafioan bizitakoak: balaztarik barik edo gasolina bidoia eskuan hartuta gidatu behar

Eskualdeko bikote parte-hartzaile biak azpitxapeldun geratu dira euren kategorietan, hamaika abentura bizi ostean

AUTO LASTERKETAK • ANBOTO

Dakar Rallyaren ospe eta handitasunik ez du Maroc Challenge raidak, baina ezta beharrik ere: bertako parte-hartzaileak amateurak eta hasiberriak dira gehienak eta espiritu abenturazalea dute. Horren adibide dira Durangaldetik joanda proba honetan parte hartu duten bikote bi: Ibon Irigoien Loizate (Durango, 1975) eta Arnaitz Irigoien Loizate (Durango, 1978) anaiak, zein, Eneko Barroeta Zubietarra (Iurreta, 1976) eta Arrizen Sagarduy Zorroza (Iurreta, 1976). Bikote biak azpitxapeldun geratu dira euren kategorian.

Marokoko Nador eta Saidia, 1.200 kilometrok banatutako herri bi, sei etapatan lotzea zen erronka. Bidean, emozioa eta adrenalina tonaka eta, tartean-tartean, buruhausteei aurre egin behar. *Barru*rentzat eta Sagarduyrentzat ez zen nobedadea, iaz ere lehenago ere parte hartutakoak zirelako.

'Barru'-k eta Sagarduyk iaz ere parte hartu zuten proban eta azpitxapeldun geratzea lortu zuten

Baina esperientziak ez ditu ezusteak libratu. Etapa batean gertatu zitzaiena da horren adibide. "Gasolina-ponpa apurtu zitzaigun. Beraz, gasolina bidoia aldean hartu, tuboak kotxera luzatu eta horrelaxe amaitu genuen etapa bat. Desertuaren erdian bakarrik zaudenean irtenbide burutsuak bilatu behar dira, ez dago beste erremediorik", gogoratu du *Barruk*.

Fiat Panda 4X4aren barruan bizitako esperientziagaz geratzen dira, eta baita emaitzagaz ere: Amatek taldeko kideek iazko bigarren postua errepikatu dute euren kategorian.

Balaztarik barik, ziztu bizian

Irigoien anaientzat esperientzia berria izan da. "*Barruk* eta Arnaitzek proba oso ondo zegoela esan ziguten eta konbentzitu egin gintuzten. Jakin-mina geneukan", adierazi du Ibonek. Audi A4 bat eskuratu, ahalik eta ondoen prestatu eta harantz

abiatu ziren. Auto lasterketetan sekula ibili bakoak izateko, lan bikaina egin dute: azpitxapeldun euren kategorian, sei etapetatik lau irabazita. "Hiru helburu genituen: gozatzea, proba amaitzea eta ahal bazen podiumera igotzea. Denak bete ditugu eta oso pozik gaude", esan du. Bigarren etapan konturatu barik ibilbidetik irten ziren eta orduan galdu zituzten irabazteko aukera denak. "Kontzentrazio faltagatik izan zen. Etapa horren pena hori geratu zaigu", onartu du.

Ausardian, behinik behin, ez ditu beste inork gaitzitu. Etapa batean balazta hondatu zitzaient eta esku-balaztagaz moldatu behar izan ziren 140 bat kilometrotan. "Gainera, konponketetan denbora asko galdu genuenez, arauzko denboratik kanpora heltzeko arriskua geneukan eta ziztu bizian ibili behar izan genuen", gogoratu du Artaburu Team-eko kideak.

Irigoien anaiek hiru helburuak bete dituzte: gozatzea, amaitzea eta podiumera igotzea

GIMNASIA ERRITMIKOA • ANBOTO

Durangoko Uztai taldeak *Txikigym* gaztetxoek gimnasia erritmiko erakustaldia antolatu du zapatu-rako. Aurreko urteetan egin duten moduan, erakustaldien harira, ekintza solidario bat burutuko dute. Klubeko familiek egindako bizkotxoekin eta Cafes Baquek emandako kafeagaz Kafe Solidarioa antolatuko dute. Ekimen horren bidez batutako dirua SFC-SQM Euskadi AESEC elkarteari emango diote. Sentikortasun zentrala izeneko sindromeak nerbio-sisteman modu batera edo bestera eragindako pertsonen laguntzen die elkarrekin. Durangon sindrome hori duen pertsona bat behintzat badagoela jakinarazi dute Uztai taldekoek.

Gimnasia erakustaldiari dagokionez, zapatuan izango da, 11:00etan, Durangoko Landako kiroldegian. Benjamin aurreko 10 talde arituko dira. Besteak beste, Durangokoak, Zornotzakoak, Mungiakoak, Zamudiokoak, Gernikakoak eta Portugaletakoak dira parte-hartzaileak.

Helburu solidarioa izango du aurtengo gaztetxoek gimnasia erritmiko erakustaldiak



Gimnasio erritmikoko hamar talderen erakustaldiak izango dira Landako kiroldegian.

Profesionaletara salto egin aurretik, Olazarreko finala

Laster Aspegaz debutatzekoa da Oier Etxebarria lemoarra; aurtengo, Zaldibarko pilota txapelketako finala jokatu du

PILOTA • ANBOTO

Afizionatuetan punta-puntan dabilzan pilotariak batzen ditu urtero-urtero Olazar pilota txapelketak, eta aurtengo aldia ez da salbuespena izan. Abenduaren 31n, Lemoako pilota eskolako Oier Etxebarriak binakako finala jokatu du eta 2019 hasieran, 21 ur-

tegaz, profesionaletan debutatuko du, Aspe enpresagaz. Zaldibarko finalean, Mungiako Danak Bat taldeko Alain Prieto pilotariagaz osatuko du bikotea. Hauen aurka eta lau t'erdian Gaizka Karregal galdakoztarraren aurka nortzuk arituko diren atzo gaueko finalerdietan erabaki zen.



Alain Prieto eta Oier Etxebarria finalerdietako partiduan. Julen Uribe

Getxok maila galdu ostean, Joana Murrayk Galizian aurkitu du errugbiko elitean jarraitzeko taldea

CRAT A Coruña taldeagaz Ohorezko Mailan eta onenen artean lehiatzen darrai Durango Rugby Taldean hezitako gazteak

ERRUGBIA • ANBOTO

Bigarren urtez, errugbiaren elitean jarraitzen du Joana Murray Barandikak (Durango, 1995). Iaz Getxo taldeagaz aritu zen. Talde honek maila galdu ostean, merkatua aztertu eta CRAT A Coruña taldeari bertara batzeko interesa erakutsi zion. Galiziarrek eskaintza onartu eta bertan bizitzeko erraztasunak eskaini zizkieten, etxea jarritz eta ikasketen praktikak egiteko tokia bilatuz, eurak ere interesatuta zudelera erakutsiz. "Alde biok geuretik ipini genuen, %50", adierazi du Murrayk. Horrela, aurreko Ohorezko Mailan eta onenen artean darrai Durango Rugby Taldean hezitako gazteak.

Abentura berrian oso gustura dabilela esan du. "Orain arte partidu denak jokatu ditut, hasi eta

amaitu. Talde langilea eta fisikoki oso ondo prestatutakoa da", adierazi du.

XVeko selekzioagaz

Errugbi XVeko Espainiako selekzioak ere bere konfiantza erakutsi zion. 2015ean debutatu zuen, lagunarteko batean azken hamar minutuak jokatu. Hiru urteren ostean, berriro deialdian sartu du, eta joan zen astean lagunarteko beste partidu bat jokatu zuen Inglaterran, baina, oraingoan, titular aritu zen.

2021eko munduko txapelketa dute buruan, baina Murrayk pausoz pauso joan gura du. "Ez dut horretan pentsatzen. Jokalari oso onak daude eta nire helburua partiduz partidu ikasten joatea da", azaldu du.



Joana Murray Galiziako taldeko kamiseta jantzita.

Jokaldia

Oihana
Azkorbebeitia
Urizar
Mendi lasterketak



Eskerrik asko

Mendiaren altzotik eskerrik asko Durangoko Azokan liburua erosi zenutenoi eta erosi ez arren interesa agertu zenutenoi. Liburua saltzeaz gain, aukera aparta izan nuen Azokara joandako hainbat jenderekin hitz egiteko, ezagunekin zein ezezagunekin, liburuari buruz zein beste kontu askori buruz, eta, alde horretatik, jendearen gertutasunari eta berotasunari esker aurtengo Azoka oso desberdina izan da niretzat, askoz ere aberasgarriagoa.

Eskerrik asko liburua delata eta elkarriketatu nautenei: Euskadi irratitari, Bizkaia irratitari, Tronpako lagun gazteei, Mugalariri, eta, batez ere, astekari honi, Anbotori.

Eta, nola ez, eskerrik asko Gerediaga elkarteari urtero Durangoko Azoka antolatzeagatik eta eskualdekooi Durangaldeko Argitalpenak standean liburua saltzeko aukera emateagatik eta eskaintako tratuegatik. Denbora asko egon ginen elkarrekin, eta eskerrik asko Esther bie eta standean saltzen egon ziren neska-mutiei, ez baita erraza lanean egotea eta aldi berean gure seme bie jaramon egitea.

Zuri ere eskerrik asko, irakurle, nirekin batera Mendiaren altzoan murgiltzeagatik. Liburuaz gozatzea espero dut. Eskerrak emateaz gainera, barkamena ere eskatu nahi dizut liburuan aurkituko dituzun errata eta bestelako akatsengatik. Badakizu, arin eta ondo, usoak hegan. Beraz, txarto esanak barkatu eta ondo esanak kontuan hartu. Azokara joateko aukera izan ez zenutenok Durangaldean leku hauetan duzue liburua salgai, nahi izanez gero: Abadiñon, estankon eta Hezgarrin; Durangon, Hitz-en; Elorriñon, Ilargin; Zornotzan, Ayerdiñon; eta Otxandion, Axpe estankon.

Asteko kirolaria

"Muay thai-ak konfiantza eta bizitzari aurre egiteko jarrera bat eman dizkit"

Aurten Espainiako muay thai txapelketa irabazi du gazteen mailan eta bere pisuan

Asteko kirolaria ez ezik, urteko kirolaria izateko merituen egin ditu aurten Joel Gonzalez gazteak. Kickboxing-ean Euskadiko txapelduna da bere adinean eta pisuan (55 kilo) eta Muay Thai-ean Espainiako txapelketa ere irabazi du. Hala ere, irabazitako gerrikoekin baino gehiago, muay thai-ak bizitzari aurre egiteko eman dizkion balioei garrantzi handiagoa ematen die.

2018. urtea ez duzu berehalakoan ahaztuko.

Ez horixe. Otsailean Euskadiko kickboxing txapelketa irabazi nuen, Bilboko Miribillan. Entrenatuta nindoan, baina sekula ez

da jakiten. Euskadiko txapelketa bat irabazten nuen lehenengo aldia izan zen. Horren ostean, Euskadiko muay thai txapelketan azpitxapeldun geratu nintzen. Muay thai-ean Espainiako txapelketara ere joan nintzen eta irabazi egin nuen. Egia esanda, ezin dut gehiago eskatu.

Denboraldia amaitu duzu?

Bai. Orain aste bi Nafarroako Arroniz herrian egindako muay thai borrokaldi bat irabazi nuen eta orain atsedean hartzeko unea da. Datorren urtean nagusien mailan arituko naiz. Zailagoa izango da, dudarik barik. Badakit salto bat egongo dena eta kostatuko zaidana, denei gertatzen zaien

moduan. Baina erronka moduan hartuko dut.

Noiztik praktikatzen duzu muay thai-a?

13 urte nituenean hasi nintzen. Lau-bost urte daramatzat eta oso gustura nabil.

Zertan bereizten da beste arte marzial batzuetatik?

Kontaktuzko kirola da. Jendeak ulertu dezan, kickboxing-agaz antzekotasunak dituela esango nuke.

Kirol horretatik, zerk erakartzen zaitu?

Muay thai-ak gauza asko eman dizkit; batez ere, konfiantza handia neure buruarengan eta bizitzari aurre egiteko jarrera eta



JOEL GONZALEZ GATO

Durango, 2000

indarra. Mundu honetan ezagutu ditudan pertsonak ere asko estimatzen ditut.

Beraz, kirol bat baino gehiago da zuretzat.

Bai. Nire izaera lantzen eta bideratzen lagundu dit. Errespetua eta diziplina lako balioak garatzeko eta nire bizitzan txertatzeko balio izan dit. Muay thai-a borrokan oinarritzen dela uste duena oker dabil. Hori baino askoz ere gehiago da. Borrokan ez egiteko ikasten da borrokan.



Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com



OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ



Herriko gudarien kalea, 10 behe - DURANGO
Tel./Faxe: 946 215 404

Bulegorako
zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA



BEA ILARDIA

EH Bilduren Bizkaiko ahalzun nagusigaia

Urte berri,
Bizkaia berri.

ehbildu

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

www.inmoetxetxo.com

DURANGO

3 logela
1 komun

TABIRA: 3 logela, komuna, sukaldea, despentsa, egongela terrazarekin, ganbara. Dena kanpora begira. Eguzkitsua, ikuspegi politak. Bizitzera sartzeko prest.

190.000€

DURANGO

4 logela
2 komun
115 m²

MIKELDI: 4 logela, 2 bainugela, sukaldea, egongela, 2 terraza. Dena kanpora begira.

166.000€

DURANGO

3 logela
2 komun

SAN IGNACIO: Pisu altua, 3 logela, 2 bainugela, sukaldea, esekitokia, egongela terrazarekin, trastelekua eta garajea.

235.000€ / Neg

DURANGO

2 logela
1 komun

MENDIZABAL: 2 logela, bainugela, sukaldea balkoiarekin, egongela handia eta ganbara.

186.000€

IURRETA

3 logela
1 komun

URRETA: 2 logela, bainugela, sukalde handia, egongela, despentsa, igogailua, berogailua.

97.000€

DURANGO

3 logela
2 logela
1 logela

BERRIAK ESTREINATZEKO: Ganbara eta 2 garagerekin. 1 logela: 178.000€/2 logela-2 komun: 213.000€/3logela-2 komun:306.000€.

BEZ barne

//ETXEBIZITZAK ALOKAIRUAN
DURANGO. Bi, eta lau logelako etxeak alokairuan. Hilean 750€-tik hasita.

//ETXEBIZITZAK SALGAI
DURANGO. Eraikin berria. Logela hiruko, azken etxebizitza salgai. **200.000€.**

DURANGO. Komentukale. Pisu ederra, hiru logelakoa, komun bat, sukaldea, egongela, eta ganbara. Bista ederrak

BERRIZ. Hiru logelako pisua. Komuna eta egongela. Ganbara ere badu. Oso eguzkitzua eta merkea.

DURANGO. Goienkale kalean. Logela biko pisu ederra, 90 m2 ganbararekin.

IURRETA. Maspe kalean. Hiru logelako pisu argitzua. Egongela eta sukaldea balkoiarekin, komuna eta igogailua.

DURANGO. Hegoalde kalean, izugarritzko adosatua salgai, 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza, lorategia, ezin hobea.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berritzatua. Horrez gain, trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI
ABADIÑO. 1.000 m2-ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokia.

BERRIZ. 10.000 m2-ko lursaila. Zelai ederra sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000m2. Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. EUBA. Txalet bifamiliarr bat eraikitze lursaila, 3.000 m2 inguruko azalerarekin.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ABADIÑO. Bifamiliarra salgai. 4 Logela, hiru komun, sukaldea, egongela, garajea. Oso polita

ATXONDO. Marzana. Izugarritzko txaleta salgai Ikuspegi bikaina, berri berri!!!

MAÑARIA. Izugarritzko baserria salgai. Herrian bertan. Lursaila 3.000 m2. Bizitzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO. Aldape auzoa. Baserria berritzatzeko, 3 hektareako lursaila. Prezioa 125.000.-€

ATXONDO. Baserri ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m2-ko lursaila baserriaren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. B^a Murgioitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m2-ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotora begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserri bifamiliarra berritzatzeko. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Eraikin atxiki ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatzeke.

BERRIZ. Baserri ederra, Murgioitio zonaldean. Hiru hektareako landa baserri ondoan

//BULEGOAK ALOKAIRUAN
ABADIÑO. 40 m2-tik gorako bulegoak, **350 €**-tik hasita.

//LOKALAK ALOKAIRUAN
Alde zaharrean, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI
MATIENA. 460 m2-ko lokala salgai, bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia

www.inmoduranguesado.com

DURANGO

3 logela
83 m²

SAN IGNAZIO: 83m² balkoiarekin. 3 logela, 2 komun, sukaldea jarrita, egongela, trastelekua eta garaje itxia. Igerileku komunitarioa aukeran.

258.000€

DURANGO

2 logela
74 m²

SASIKOA: 74m2, 2 logela, egongela, sukalde-jangela, bainugela eta balkoia. Berogailua eta ura gas naturalarekin. Ganbara eta garaje itxia.

249.000€

DURANGO

3 logela
1 komun

TABIRA: 71m2, 3 logela, egongela, sukaldea jarrita, bainugela eta balkoia.

180.000€/Neg

ERMUA

2 logela
70 m²

ERMUA: 70 m2. Egongela, sukaldea jarrita, 2 logela, bainugela bat, 2 terraza eta despentsa. Egoera onean. Dena kanpora begira. Igogailua.

230.000€

DURANGO

2 logela
1 komun

JUAN DE ICIAR: 2 logela, egongela, sukaldea jarrita eta berritzatua, 2 despentsa eta bainugela berritzatua. Gas naturalarekin berogailua.

92.000€

DURANGO

2 logela
51 m²

SAN FAUSTO: 51 m2, hall-a, 3 logela bitara bihurtuta, egongela eta bainugela duxarekin. ITEa pasata 2017an.

89.900€

//DURANGO.
ALLUITZ KALEA 4 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garaje itxia eta ganbara. **295.000 €** / E.E.Z=E

ANDRA MARI 5 logela, egongela, sukaldea, bainugela, igogailua. LEHEN 250.000 ORAIN **230.000 €** / E.E.Z =F

ASKATASUN ETORBIDEA 3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000€/E.E.Z=F**

BARRENKALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta igogailua. **126.300 €** / E.E.Z= G

ERRETENTXU 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. LEHEN 210.000 € ORAIN **190.000€/ E.E.Z=E**

ERRETENTXU 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia eta igogailua. **205.000 €** / E.E.Z=E

EZKURDI 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela eta igogailua. **321.500 €** / E.E.Z=F

KOMENTUKALE Logela 1, sukalde-egongela, bainugela, ganbara eta igogailua. **186.000EURO/ E.E.Z=F**

KURUTZIAGA 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela. **99.000 €** / E.E.Z Bidean

MIKELDI 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta ganbara. LEHEN 270.000€ ORAIN **260.000 €** / E.E.Z= E

MONTEVIDEO 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela eta, igogailua. **219.000€ E.E.Z= F**

MURUETA TORRE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, igogailua, garajea eta trastelekua. **288.000 €** / E.E.Z=E

MURUETA-TORRE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, balkoia, igogailua, garajea eta trastelekua. **290.000 €** / E.E.Z=E

PLATERUEN PLAZA 4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. LEHEN 260.000 €/ ORAIN 245.000 € / E.E.Z=E

SASIKOA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 komun, ganbara eta garaje itxia **259.000 €** / E.E.E=E

ZEHARKALE 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. LEHEN 150.000 € / ORAIN **130.000 €** / E.E.Z= E

ZUMALAKARREGI 5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela, igogailua eta garajea. **695.000 €** / E.E.Z= E

//LURZORU ERAIKIGARRIA
SANTIKURUTZ KALEA Etxebizitza bifamiliarra eraikitze lursaila 600m2ko lur-sorua. **640.000€**

//ABADIÑO
ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000 €** / E.E.Z Bidean

ARLOZABAL 2 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **175.000 €** / E.E.Z=E

ZELETABE 3 logela, egongela, sukaldea, 2 bainugela, igogailua, trastelekua eta garajea. **309.000 €** / E.E.Z= F

//BERRIZ
ANDIKONA AUZO Berreraikitze baserria. **460.000€**

BERRIZBEITIA KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 €** / E.E.Z=F

ELIZONDO AUZO 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, komuna eta balkoia. Kotxe bi kalean aparkatzeko aukera. **142.000 €** / E.E.Z= G

OLAKUETA PLAZA 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta 2 balkoi. **135.000 €** / E.E.Z= G

//ELORRIO
ELIZBURU KALEA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela. LEHEN 189.000 €/ ORAIN **179.000€** / E.E.Z=E Garaje itxia aukeran.

//IURRETA
AMILBURU MUSIKARIEN PLAZA 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, terraza, igogailua ganbara eta garajea. **276.000€** / E.E.Z= E

ZUBIAURRE KALEA 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta igogailua. LEHEN 100.000€/ORAIN **97.000€/ E.E.Z=E**

//OTXANDIO
GOMILAZ AUZO Baserria lurzoruagaz. **350.000€**

ARTEKALE 2 logela, sukaldea, office, egongela, bainugela, balkoia. **75.000€** / E.E.E=E

//BERRIAK
DURANGO - ANBROSIO MEABE 3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, ganbara eta garaje itxia. **265.000€** / E.E.Z=Bidean

BERRIZ - BILBO ETORBIDEA 3 logela, sukaldea, egongela-jangela, 3 komun eta balkoia **195.000€/ E.E.E=E**

IURRETA - FAUSTE Baserria lurzoruagaz, **220.000€** / E.E.Z=G

MAÑARIA - EBARISTO BUSTINTZA KIRIKIÑO 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi, 2 ganbara eta txokoa **180.000€** / E.E.E=Bidean

OTXANDIO- ELIZABARRI 3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lorja **106.000€** / E.E.E=F

ZALDIBAR - ZALDUA ELIZATEKO PLAZA 4 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta trastelekua **150.000€** / E.E.Z=G

Botikak

BARIKUA, 14 · 09:00-09:00

DE DIEGO
Intxaurren 22 - **DURANGO**

09:00-22:00

IRUARRIZAGA, KARMELE
San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO
Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

ZAPATUA, 15 · 09:00-09:00

MUGICA
Andra Maria 9 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE
San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

JAIO-ABENDIBAR
Errekakale 6. - **ELORRIO**

EGUREN, ISABEL
Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

DE DIEGO
Intxaurren 22 - **DURANGO**

ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

NAVARRO
Artekalea 6. - **DURANGO**

CAMPILLO
Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA
Muruetatorre 2C - **DURANGO**

BAZAN DIAZ
Uribarri 5 - **DURANGO**

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19- **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN
Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN
Bixente Kapanaga 3- **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR
Urbitarte poligonoa,
4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO
Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 16 · 09:00-09:00

IRUARRIZAGA, KARMELE
San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

ETXEBARRIA
Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO
Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 17 · 09:00-09:00

CAMPILLO
Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN
Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO
Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE
San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 18 · 09:00-09:00

GUTIERREZ, IBAN
Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

GAZTELUMENDI
J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

09:00-22:00

IRUARRIZAGA, KARMELE
San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO
Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

EGUAZTENA, 19 09:00-09:00

IRIGOIEN
Bixente Kapanaga 3- **IURRETA**

GUTIERREZ, IBAN
Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO
Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE
San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 20 · 09:00-09:00

GUTIERREZ, IBAN
Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19- **DURANGO**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO
Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE
San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



**GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA**

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Ametz (743. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.



Abenduaren 12an **Zigor** Gerediak 34 urte egin ditu! Zorionak eta mosu bat danon partez!



Abenduaren 9an **Juan Luis** Cebrianek urteak bete zituen eta abenduaren 16an **Fernando** Cebrianek beteko ditu. Zorionak bioi, etxeko danon partez! Ta aupá Athletic!



Martinek 7 urte betetzen ditu eta **Telmok** 5. Zorionak familiaren partez bi deabrutxo hauei.



Luarek 2 urte bete abezan abenduaren 6an. Zorionak etxeko-koen partez!

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 14° / 4°



ASTELEHENA 🌧️ 12° / 7°



EGUAZTENA 🌧️ 12° / 5°



DOMEKA 🌧️ 13° / 7°



MARTITZENA 🌧️ 11° / 7°



EGUENA 🌧️ 11° / 5°



Egin zaitez Anbotoren Lagun
eta atera etekina txartelari!

Anbotorenlagunak
Lekuan lekuko lagunak

www.anboto.org · lagunak@anboto.org · 946 816 558



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak



“Animazioan lan egin gura nuke, marrazki bizidunen telesailetan”

Los Angelesko Game Award sarietan izan da ‘Jera’, bi dimentsiotako irudiekin sortutako bideojokoa. Digipeneko ikasle talde batek sortu du, eta Uxue Artetxe durangarra partaide da

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Los Angelesen (AEB) bizitako esperientzia ez du erraz ahaztuko Uxue Artetxek. Game Award bideojokoen Oscarretan parte hartu du ‘Jera’-k, 11 lagunen artean sortutako bideojokoak. Lagunekin eta familiagaz elkartzeko momenturik ezin topatu ibili da azken urtean. Hala ere, egindako ahaleginak izan du bere saria animazio zuzendariarentzat.

Azkenean, saria lortu barik bueltatu zarete Los Angelesko (AEB) Game Award sarietatik.

Hala da. Dena den, Los Angelesen egotea izan da guretzat saririk onena. Esperientzia oso polita izan da eta jende piloa ezagutu dugu gainera.

Ikasleek egindako bideojokorik onenaren atalerako bost finalisten artean egon da ‘Jera’. Nola hartu zenuen albisteak?

Pentsa! Bartzelonako Gamelab 2018 sarietan, unibertsitate mailako bideojokorik onenaren saria lortu genuen, eta pentsatu genuen hor amaitu zela kontua. Baina, gero, munduko bost onenen artean zegoela jakin genuen. Itzela! Bilboko Fun & Serious sarietarako ere hautatu zuten euskal bideojokorik onenaren sarirako. Ez dugu lortu, baina *Gris* bideojokoaren egileekin elkartzeko aukera izan genuen eta proiektu oso ona egin dugula esan ziguten. Horixe da saririk onena! Sinistu ezinik egon gara, dena ilusio handiagaz bizi izan dugu.

Zer du berezi ‘Jera’-k?

Gaur egun dena da 3D-n, eta guk 2D-ko irudiekin sortu dugu *Jera*; 20 urte atzera egin dugu, dena 2D-an zen garaietara. Gainera, pisuzko istorio bat ere sartu dugu.

Zein da istorio hori?

Aurpegia ezkutatuta duten garai

batera garamatza, milaka urte atzera. Emakume traza duten genero bako pertsonak bizi diren toki horretara munstro ikaragarri bat helduko da denak hiltzeko. Hala ere, hiru heroik munstroari aurre egitea lortuko dute. Baina, mila urte igarota, berriro bueltatuko dela diote. Horren aurrean, jokalaria munstroa behin betiko hiltzea lortu behar du, hiru elementu lortu ostean. Bide horretan, hainbat laguntzaile eta traba topatuko ditu. Azkenean, sekretu handi bat ezagutuko du. Hori da istorioa, baina konplot txiki piloa dago. Ez dugu dena kontatuko.

11 lagunen artean sortu duzue bideojokoa. Bost programatzailek eta sei artistak. Zaila izan da elkarlana?

Oso desberdinak diren ikuspuntu bi bateratu behar izan ditugu, eta ados jarri. Bakoitzak gauza bati ematen dio garrantzia. Baina ondo aritu gara.

Gauza asko hartu behar dira kontuan? Musika, irudia, mugimendua...

Bai. Nolako giroa sortu gura dugun erabakita, musikari batek sortu du musika. Berdin istorioari dagokionez: *brainstorming* edo ideia-jasa egin ostean, istorio osoa egituratzeko, garatzeko, ardura hartu dute bi pertsonak.

Nolako pisua du arlo artistikoak?

Begietatik lehenengo sartzen dena da arlo artistikoa. Bada, uste duguna baino pisu handiagoa du.

Bideojoko zalea zara?

Bai. Baina ez naiz asko jolasten. Urtero-urtero joko berriak irteten dira eta oso zaila da azken modan egotea. Dirua ere behar da.

Ikusten zenuen zure burua bideojokoak sortzen?

Albaitaritza ikastea nuen buruan, baina Bilboko Digipen institutuan hasi nintzen. Programazioaz gainera arlo artistikoa landu zitekeela jakitean probatzea erabaki nuen. Animazioan lan egin gura nuke, baina 2D-tako irudiekin: marrazki bizidunen telesailetan, Disneyko pelikulen modukoetan, komikigintzan... eskulana gustatzen zait.

Marrazkilaria zara. Aspalditik marrazten duzu?

Txikitatik. Baina ikasketak zirela-eta baztertuta izan nuen, Digipenen hasi arte. Manga estiloagaz hasi nintzen

arren, orain Cartoon-era bideratu ditut indarrak. Manga baino konplexuagoa da eta asko gustatzen zait; ez da horren mugatua.

Lau hortza

Uxue Martinez
Mazaga
Soziologoa



Vox populi

Herritarron ahotsa entzuten omen da hauteskundeetan. Botoak vox populi ei dira. Jatorri latindarra duten hitzok hori berori esan nahi baitute: “herriaren ahotsa”. Ingelesekin, txikikeriak ere zehazteko joera dutenez, “jendearen iritzia” edota “gehiengoaren iritzia” bezala erabiltzen dute esatera. Gaztelaniaz, aldiz, “vox pópuli” bihurtuta, ezaguna den zerbaiti egiten diote erreferentzia hitzok.

Ezaguna da 395.978 andaluziarrek euren botoa eman ziotela Vox-i abenduaren 2an. Aurreikusitako emaitzak bazterrak astindu ditu egun batzuek. Ezaguna da milaka analisi politiko, soziologiko eta ekonomiko egin direla honen bueltan hitz azkarrez. Beraz, zenbakien azterketa ere egin dute, asko edo gutxi ote diren ebatzi nahian. Ezaguna da boto-emaile horiek eskuineko eskuindarrenak, faxista modernoak edota noraezean dabiltzan desengainatuak ote diren zehazteko asmoz, hamaika hausnarketa kualitatibo lausotuak plazaratu direla. Ezaguna da gainontzeko alderdi guztiek ez dutela gaitzetsi Vox-ekin paktua egitearen komenentzia. Ezaguna da boterea eskuetan izatearen grinak edozein langa gainditzeko gai egiten dituela egungo politikariak.

Klima-aldaketaren adierazle berria dugu Andaluziako “herriaren ahotsa”. Eta, klima-aldaketaren eraginez ate joka dugun etorkizuna iluna da. Uholdeak, lehorteak, sasoiz kanpoko urakanak eta bestelako muturreko gertakariak baititu ezaugarri klima-aldaketak. “Vox pópuli” da mundua pikutara doala. Hala ere, badira ukatu ere egiten dutenak.

Gertatzen ari dena ukatzea ez da doanekoa Juan Debalde. Gaurko klima politikoak muturreko gertakari beltzak dakartza zeruertzerara. Prest ote gaude? Izan dadila ezetza vox populi, herriaren ahotsa, gehiengoaren iritzia.

Uxue Artetxe Diez
‘Jera’bideojokoaren animazio zuzendaria.
Digipeneko ikaslea.
Durango | 1998



DURANGO KABILDUOSTE



Aurki Durangon eraikinak egingo dira, **Kabilduoste zona eskusiboan**, San Roke auzoan, erdigunetik eta Ezkurdi plazatik pauso batera.

Montevideo-ko arrakastaren ondoren proiektu berria Durangon,

KABILDUOSTE

Informa zaitetz!

946 462 041

sukia
Zure etxean zaude. Estás en tu casa.

www.sukia.com